

# BIGARREN HIZKUNTZAREN JABEKUNTZAN ERAGITEN DUTEN FAKTORE SOZIOAFEKTIBOAK ETA LEHEN HIZKUNTZAREN TRATAERA.

EAEn LEHEN HIZKUNTZA EZ EUSKARA ETA EZ  
GAZTELERA EZ DUTEN HAURREN BI KASUREN  
AZTERKETA



HIZNET SAKONTZE EGITASMOA

IKASLEA: NAIARA ETXEBERRIA  
TUTOREA: MARIO ZAPATA  
2012ko uztaila

## AURKIBIDEA

1. SARRERA
  - 1.1. LANAREN ABIAPUNTUA
  - 1.2. LANAREN HELBURUAK
  - 1.3. LABURPENA
2. HIZKUNTZA JABEKUNTZA
3. BHren JABEKUNTZA: FAKTORE AFEKTIBOAK ETA LEHEN HIZKUNTZEN TRATAERA
  - 3.1. BHren JABEKUNTZARI BURUZKO TEORIAK ETA FAKTORE AFEKTIBOAK
  - 3.2. BHren JABEKUNTZAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK
    - 3.2.1. FAKTORE AFEKTIBOAK
      - 3.2.1.1. FAKTORE AFEKTIBO PERTSONALAK
        - 3.2.1.1.1. ANTSIETATEA
        - 3.2.1.1.2. INHIBIZIOA
        - 3.2.1.1.3. BARRENKOITASUNA eta KANPOKOITASUNA
        - 3.2.1.1.4. AUTOESTIMA
        - 3.2.1.1.5. KANPO ETA BARNE MOTIBAZIOA
        - 3.2.1.1.6. IKASTEKO ESTILOA
      - 3.2.1.2. ERLAZIOZKO FAKTOREAK
        - 3.2.1.2.1. IDENTITATEA
        - 3.2.1.2.2. ENPATIA
        - 3.2.1.2.3. KULTURANIZTASUNAREN KUDEAKETA
        - 3.2.1.2.4. JARRERAK
        - 3.2.1.2.5. FAMILIEKIKO HARREMANA
    - 3.3. BHen JABEKUNTZA ETA LEHEN HIZKUNTZEN TRATAERA
      - 3.3.1. DATU BATZUK ESTATUZ KANPOKO ETORKINEN LEHEN HIZKUNTZEN INGURUAN
      - 3.3.2. ELEBITASUN GEHITZAILEA ETA ELEBITASUN KENTZAILEA
      - 3.3.3. JIM CUMMINS ETA INTERDEPENDENTZIA LINGUISTIKOA
      - 3.3.4. LEHEN HIZKUNTZAK, ESKOLETAKO HIZKUNTZA EREDUAK ETA NORMALIZAZIOA
  4. BI KASUREN AZTERKETA
    - 4.1. KASUAK
    - 4.2. METODOLOGIA
    - 4.3. AZTERKETA KUALITATIBOA
  5. ONDORIOAK
  6. BIBLIOGRAFIA
  7. ERANSKINAK

## 1. SARRERA

### 1.1 LANAREN ABIAPUNTUA

Asko dira gure eskoletan euskara ikasten ari diren haur zein gaztetxoak. Munduko hainbat herrialdetatik datoz eta ez dute/ dugu nolana hiko erronka: ofizialak diren hizkuntzak ikastea.

Gaur egun, EAEn lehen hizkuntzat ez euskara eta ez gaztelera ez diren beste hizkuntza bat edo batzuk dituzten haurrekin topo egiten ari gara. Lan honen abiapuntua kezka batetik dator: perfil honetako haurrak nola jabetzen dira euskaraz EAEn gaur egun dugun testuinguruan (hizkuntza gutxitua izanda)? D ereduan kontuan hartzen al dira hizkuntza berri bat ikasteko faktoreak?

Bigarren Hizkuntza<sup>1</sup> bat (BH aurrerantzean) ikasterakoan garrantzia nabarmena duten faktoreez arituko gara lan honetan zehar. Aurrerago ikusiko dugun bezala, adituen esanetan, ezinbestekoa da lehen hizkuntza ondo menperatzea ondoren beste hizkuntzak ikasteko. Lehen hizkuntzaren trataera, beraz, faktore garrantzitsu bat izango litzateke beste hizkuntzen jabeakuntza prozesuan. Baina ematen ote zaio gai honi behar den tokia gure eskoletan?

Gure kasuan gainera, euskara gutxitutako hizkuntza izanik, eta normalizazio prozesuko gakoetako bat hezkuntza izanik, ezinbestekoa da jatorri ezberdina duten ikasleek euskara ikastea gure hizkuntzak aurrera egin dezan, hitzun gehiago lortzeko bide garrantzitsuenetako bat baita: aukera bat da bai euskal hitzunen komunitatearentzat eta baita gizartearentzat oro har ere (hitzun gehiago lortzeko, euskal hitzunen komunitatea handitzeko, elkarbizitarako tresna, gizartea kohesionatzeko tresna).

Euskara ikastea bermatzen duen eredu bakarra D eredu dela kontuan hartuta badaude kezka sortzeko moduko hainbat gai:

Murgiltze eredu diseinatu zenean gehien bat gaztelera edo frantsesa lehen hizkuntzat zuten haurrak euskarari murgiltzea zen helburu. Kasu hauetan euren lehen hizkuntza garatzeko ez dute inongo oztoporik eta garapena bermatuta dago, gizartean gehiengoaren hizkuntza baita. Baina zer gertatzen da gizartean presentziarik ez duen hizkuntza baten kasuan (errumaniera edo tamazighta kasu)? Murgiltze eredu da benetan eskaintzen zaien eredu D ereduan matrikulatzen diren haurrei?

Murgiltze ereduaren oinarrietako bat da irakasleek ikasleen lehen hizkuntza ulertzea da (eta hala gertatzen da D eredu ikastetxeetan gaztelaniaren (hegoaldean) eta frantsesaren (iparraldean) kasuetan. Baina, oraingoz behintzat, oso zaila da ikastetxeetako irakasleek ikasleen lehen hizkuntza guztiak ezagutzea. Zer da, beraz, eskolak egin dezakeena?

---

<sup>1</sup> Lan osoan zehar "Bigarren Hizkuntza" kontzeptua erabiliko den arren, kontuan hartu behar da kasu askotan etxetik hizkuntza bat baino gehiago dakartela ikasleek, beraz, eskolan ikasi beharreko hizkuntza ez da bigarren hizkuntza izango, hirugarrena edo laugarrena baizik.

Galdera horiei erantzuten saiatuko gara lan honetan zehar eta lehen hizkuntza lantzearen garrantzia zertan oinarritzen den ikusteaz gain, hizkuntzen jabeakuntzan faktore sozioafektiboek nola eragiten duten aztertuko dugu, ikasleen egoera afektibo pertsonalak eta harrera gizartearekin erlazionatzeko moduak gakoak baitira hizkuntza berri baten jabeakuntza prozesuan.

Bukatzeko Gipuzkoa eta Arabako kasu bana aztertuko ditugu. Lehen hizkuntza errumaniera eta arabiera duten bi haurren kasuak ikusiko dira eta euskararen jabeakuntza prozesuan faktore sozioafektiboek eta lehen hizkuntzaren trataerak nola eragiten duten ikusten saiatuko gara euren irakasle eta gurasoen begietatik.

## 1.2 LANAREN HELBURUAK

---

Lanaren helburu orokorra euskara eta gaztelera ez dakiten haurren kasuetan euskararen jabeakuntzan eragiten duten faktore sozioafektiboak eta lehen hizkuntzaren trataera aztertzea da eta horrek bi kasu errealetan duen isla aztertzea guraso eta hezitzaileen ikuspuntutik.

Euskara gutxitutako hizkuntza bat izanik, bere normalizazio- prozesuan hiztun berriak lortzeak duen garrantzia ikusita, lan honekin haur horien euskararen jabeakuntza arrakastasua izan dadin gako batzuk eman nahi dira. Jabeakuntza arrakastatsua izatea nahi dela esaten denean, etorkizunean euskal hiztun komunitateko kide izatea da esan nahi dena, hizkuntza ezagutu eta erabiltzen duten norbanakoak, alegia.

Helburu zehatzak hauetxek lirateke:

- BHen jabeakuntzan eragiten duten faktore afektibo pertsonalak zeintzuk diren eta prozesuan nola eragiten duten aztertzea
- BHren jabeakuntzan eragiten duten erlaziozko faktoreak zeintzuk diren eta prozesuan nola eragiten duten aztertzea
- Lehen hizkuntzen trataerak BHen jabeakuntzan nola eragiten duen aztertzea
- EAEn lehen hizkuntza ez euskara eta ez gaztelera ez duten bi haurren kasuak aztertzea lehen hizkuntzen trataerari eta faktore sozioafektiboek dagokienentz bi ingurune soziolinguistiko desberdinetan euren guraso eta hezitzaileen iritzietan oinarrituta.

### 1.3 LABURPENA

---

Lan honek BHren jabeakuntza prozesuan parte hartzen eta eragiten duten faktoreak zeintzuk diren aztertu nahi du.

Horretarako, lehenik eta behin, gaiaren inguruan adituek diotena jasoko dugu: nola eragiten duten faktore afektibo pertsonalek, faktore sozialek eta lehen hizkuntzaren trataerak BHren jabeakuntzan.

Azterketa kualitatiboa aurkeztuko dugu ondoren. Bertan egoera soziolinguistiko ezberdinetan dauden Gipuzkoa eta Arabako bi herritako kasu bana aztertuko dugu. Kasu horietan lehen hizkuntza ez euskara eta ez gaztelera ez duten bi haurren guraso eta irakasleei elkarrizketak egin zaizkie eta euren ustez, aipatutako faktoreen eragina zein den aztertu eta konparatuko da.

Amaieran elkarrizketak egiteko gidoiak eta elkarrizketen transkripzioak jaso dira.

## 2. HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA

BHren jabeakuntza ulertu ahal izateko ezinbestekoa da hizkuntza jabeakuntza nola gertatzen den ulertzea.

Badirudi, intuitiboki, bi prozesuek berdin gertatu behar dutela, alegia, lehen hizkuntzaren jabeakuntzak eta BHren jabeakuntzak lotuta joan behar dutela eta, adituen esanetan, faktore komun asko dauden arren, aldeak ere nabarmenak dira eta oso argi ez dauden aztertu beharreko ugari daude arlo honetan.

Denbora luzean zehar aditu eta korrante askok aztertu eta erantzun nahi izan duten galdera nagusia kognizioaren eta hizkuntzaren artean ze lotura dagoen izan da. Hizkuntza ikasteko prozesuak loturarik ba al dauka gainerako edukien jabeakuntzarekin? Eta loturarik izatekotan, nolako litzateke lotura hori?

Hizkuntzaren jabeakuntzaren inguruan hainbat teoria garatu dira historian zehar:

Behaviorismoa, azalpen innatista, konputazionalismoa, Piageten konstruktibismoa eta neokonstruktibismoa, Karmiloff- Smith-en eredu neokonstruktibista, teoria sozio-kulturala...asko dira gaur egungo ikuspegi interakzionista osatzeko historian zehar garatu diren teoriak eta denek egin dizkiote ekarpenak gaur egun nagusi den ereduari.

Hauetxek dira teoria honen oinarritzko ideiak Ruiz Bikandiren<sup>2</sup> arabera:

- Hizkuntzaren ezagutza ez dator beste ezagutza motetatik.
- Aurre-diseinu bat dugu, hizkuntzari dagozkion berezko ezagutza batzuk.
- Hizkuntza jabeakuntza inguruarekin informazioa trukatzean gertatzen da.
- Hautematea, oroimena, emozioa eta pentsamendua elkarrekin loturik daude.
- Funtzioa, esanahia eta forma aldi berean ikasten dira, hizkuntza testuinguruan erabiliz ikasten da.
- Zentzu- bilaketak gidatzen ditu munduaren ezagutza eta hizkuntza datuen interpretazioa.
- Komunikazio beharrak hizkuntza- egituren gainean jardutera eramaten du haurra: horrela, komunikatzeko modu pragmatikorik modu sintaktikora pasatzen da.
- Erregularitasun formalen abstrakzioa egiten du ikasitako egiturak berrikustean eta akatsak egiten ditu.

<sup>2</sup> RUIZ BIKANDI, U. (2009): Bigarren hizkuntzaren didaktika haur eta lehen hezkuntzan. UPV-EHU.

- Hizkuntzak berrantolatzeko jarduera hasieran ez da kontzienteki egiten.
- Aurrera egiteko lehendik daukanera bueltatu eta berrantolatu, birdeskribatu eta berrirudikatu egiten du.
- Sormena aurrez diren irudikapenen egonkortasunetik jaiotzen da.
- Ezagutza berriez jabetzea inguruak ezarritako arazo edo behar bati emandako erantzuna da (gatazka kognitiboari).
- Subjektua hazi ahala, barne- kontrola hartuz joaten da eta ezagutza eraldatu eta aurrera egiten du, berrikusiz eta berreginez.

Alderdi kognitiboaren eta hizkuntza ezagutzaren arteko loturaz asko eztabaidatu dela aipatu dugu arestian; hizkuntzaz jabetzeari munduari buruzko ezagutza orokorrak eragiten dio eta horretan parte hartzen duten mekanismoek parte hartzen dute hizkuntzaz jabetzean ere, elkarreragina dago bi jabe-kuntzon artean. Horrek ez du esan nahi hizkuntza jabe-kuntza prozesu kognitiboaren emaitza hutsa denik. Non hasten diren prozesu kognitibo orokorrak eta non hizkuntzari dagozkionak, hori da ikertzaileen eztabaidagai nagusietako bat. Guk hala ere, bigarren (edo hirugarren, laugarren...) hizkuntzaren jabe-kuntzan jarriko dugu arreta hurrengo orrialdeetan.

Badirudi lehenengo hizkuntzaz jabetzeko erabilitako estrategiak (berriki esperimentatu direlarik) prest daudela eta erraztu egiten dutela BHren jabe-kuntza.

### 3. BHren JABEKUNTZA, FAKTORE SOZIOAFEKTIBOAK ETA LEHEN HIZKUNTZEN TRATAERA

BHren eta lehenengo hizkuntzaren jabeakuntza aztertzen hasi zirenean, lehenengo eta BHren arteko erlazioak aztertzea gakoa izan zen, batez ere hizkuntza baten jabe diren pertsona taldearen eta beste hizkuntzaren jabe direnen arteko harremanak. Argi geratu zen hizkuntzak garrantzia handiko faktore emozional, kognitibo eta kulturalen bultzatzaile eta ispilu direla eta hizkuntzaz jabetzea faktore horiek eragiten eta, kasu batzuetan, erabakitzen dutela.

Komunikatzeko gaitasuna ez dago bakarrik ezagutza maila, ulermena eta euren trebetasunekin lotuta, arlo honetan izugarritzko garrantzia dute, norberaren izaerarekin lotutako faktore pertsonalek zein gizartearekin erlazionatzeko faktoreek aurrerago ikusiko dugun bezala.

Hizkuntza jabeakuntza prozesua arrakastatsuagoa izango da faktore kognitiboez gain, faktore afektiboak ere kontuan hartzen badira.

#### 3.1. BHren JABEKUNTZARI BURUZKO TEORIAK ETA FAKTORE SOZIOAFEKTIBOAK

BHren jabeakuntza aztertzen hasi zirenean, lehenengo hizkuntzaren jabeakuntzan gertatzen den bezala, hizkuntza ikasten den testuinguruari ezinbestean erreparatu behar ziotela jabetzeak bigarren hizkuntza horren ikaskuntzan sartzen diren alderdi soziokultural, diskurtsibo eta estrategiko guztiak ere kontuan hartzera eraman zituen aztertzaileak.

Horrela hasi ziren aztertzen sorburu hizkuntzako eta helburu hizkuntzako hiztun taldeen arteko harremanak. Hau aztertuta argi geratzen da hizkuntzak garrantzi handia duten faktore emozional, kognitibo eta kulturalen motorra direla.

BHren jabeakuntzaz ari garelarik, komenigarria da honen inguruko teoriak zer esaten duten ikustea. Norberaren lehen hizkuntza ez den beste hizkuntza batez jabetzeko prozesuan faktore sozioafektiboek duten garrantzia azpimarratzen dute ondorengo hauek.

Teoria orokor hauetan hizkuntza komunitateen arteko harremana giltzarria dela esaten da BHren jabeakuntza prozesuan. Kontuan hartu beharrekoa da, ordea, Euskal Herriko egoera: euskara gutxitutako hizkuntza izanik (eta ondorioz, euskal hiztunen komunitatea ere bai) harremanak ez dira mugatzen euskal hiztun komunitatea eta beste hiztun komunitateen artekoetara, kontrakoa, gaztelania eta frantsesa gure lurraldean nagusi izanik, horiekiko interakzioa handiagoa izaten da inguru soziolinguistiko erdaldunduetan eta hori kontuan hartu beharrekoa da.



## Stephen Krashen eta iragazki afektiboaren teoria

Stephen Krashenek egindako lanaren emaitzak 1985ean argitaratu zituen *The Input Hypothesis: issues and implications* lanean. Bertan postulatu batzuk proposatzen ditu, tartean iragazki afektiboaren hipotesia deitzen duena.

Krashen-en arabera bi modu daude BH ikasteko:

Batetik, modu azpikontzientea daukagu. Modu honen arabera jabetu ohi dira haurrak lehen hizkuntzaz, esanahian zentratuta eta formari kasurik egin gabe. Modu honetan, eta Gramatika Unibertsalaren berezko ezagutzei esker, BHren gramatikaren legeak identifika daitezke, horretarako ahalegin kontzienterik egin gabe. Bestetik, modu kontzientea daukagu, hizkuntza kontzienteki ikastea. Hau bigarren hizkuntza horren gramatika arauak ezagutzeko prozesu kontzientea izango litzateke. Lehenengoa hizkuntzaz jabetzearekin lotzen du eta bigarrena, berriz, hizkuntza ikastearekin.

Ikasteko bi modu hauek elkarren kontra daude: jabetzea vs. ikastea. Krashenen ustez, jabetzeari eman behar zaio lehentasuna BH menderatzeko, modu azpikontzienteari, alegia.

Krashenen teoriarekin lotuta interesgarria da aipatzea filtro afektiboaren hipotesia, honen arabera, aldagai afektiboak gakoak dira hizkuntzaz jabetzea errazteko. Afektibitate positiboa garatu behar dela azpimarratzen du. Kontrako egoera batek, motibazio faltak, gehiegizko antsietateak edo estresak iragazkia aktiba dezakete eta edozein eduki ulertzea eragotziko lukeen barrera moduko bat sortuko luke. Krashenen arabera eskolan BHren jabetzea arrakastaz lortuko bada, lehentasuna izan behar du iragazki afektibo hori jaisteak.

## Teoria interakzionistak eta eredu multidimentsionala

Teoria interakzionistek inguruneko faktoreetara jotzen dute BHren nahiz lehenengo hizkuntzaren jabetzea azaltzeko (in Ruiz Bikandi, 2009). Horretarako hainbat dimentsio hartzen dituzte kontuan: dimentsio sozio- psikologikoa, dimentsio linguistikoa eta dimentsio kognitiboa.

Dimentsio sozio- psikologikoaren arabera, ikasleen orientazio soziologikoa continuum bat bailitzan irudikatzen dute. Continuum horretako mutur batean orientazio baztertzaila legoke eta bestean, berriz, orientazio integratzailea. Orientazio baztertzailaren muturrean legokeen ikasleak ez luke interesik bertakoekiko harremanetan, bertakoek baztertu egiten dute edo ez du motibazio instrumentalik edo kulturari integrazteko motibaziorik; beste muturrean legokeen ikasleak, aldiz, bigarren hizkuntzaren jabe den gizataldera hurbiltzeko gogoia edo behar instrumental handia du.

Ikasleak askotarikoak dira eta batzuen eta besteen orientazioak askotarikoak izan daitezke; orientazio hauek, gainera ez dira estatikoak eta bizi duen momentuaren arabera ere mutur batetik edo bestetik gertuago egongo da.

Eredu honen arabera ere motibazioa izango litzateke BH ikasteko faktore gakoetako bat.

Schumann-en akulturazio eredua

Jon H. Schumannek <sup>3</sup> eredu bat eskaintzen du azaltzeko ingurune faktoreek, faktore soziolinguistikoek eta psikologikoek BHren jabeakuntzan duten pisua.

Autore honen ustez, akulturazioa beste hizkuntza taldean ikasten duenaren integrazio sozial eta psikologikoa da.

Bi kontzeptu gako erabakitzen dute Schumannen arabera helburu- hizkuntzarako hurbiltasun emozionala: gizarte distantziak eta distantzia psikologikoak.

Gizarte distantziak ikaslearen lekua markatzen du, aurrean bigarren hizkuntza duen gizarte taldeko kide den aldetik. Gizarte distantziaren barruan lau aldagai bereizten ditu: hizkuntza horiei dagozkien gizarte taldeen arteko harremanak, ikaslearen taldea nola kokatzen den bigarren hizkuntzako taldearen kulturaren aurrean, norberaren taldearen kohesioa eta tamaina eta taldeen arteko distantzia kulturala eta jarrera.

Distantzia psikologikoari dagokionez, lau faktorek osatutako taldea dela azaltzen du: kultura-talka, hizkuntza-talka, motibazioa eta ni-aren iragazkortasuna.

Faktore psikologiko horiek jabeakuntza prozesuan parte hartzen duten hizkuntza- aldagaiei eta aldagai kognitiboek batzen zaizkie. Distantzia psikologiko hori bitarteko kolektibo eta pertsonalen bidez txikitu ahal izateko identifikatu zituen Schumannek faktore hauek eta badirudi gakoak direla BHz jabetzea ez oztotatzeko. Faktoreek helburu hizkuntzaren eraginpean jarri, eta ondorioz, hizkuntza ikastea baldintzatzen dute.

Neurri handi batean hizkuntza jabeakuntzan arrakasta izan ala ez erabakitzen duten faktoreak ingurune soziolinguistiko eta kulturalean ezartzen eta taldeko kide direla markatzen duten faktoreak daude.

---

<sup>3</sup> SCHUMANN, John (1978): The pidginization process: a model for second language acquisition, Newbury House.

### 3.2 BHren JABEKUNTZAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

---

BHren jabeakuntzan eragiten duten faktoreen artean garrantzitsuenak INPUTa, OUTPUTa eta faktore sozioafektiboak lirateke

Inputa deitzen diogu ikasleak hizkuntza berria jasotzen duen informazio guztiari; hemendik ateratzen ditu hizkuntzaren arau guztiak eta, harrigarria badirudi ere, jasotzen duen informazio horrekin ikaslea gai izango da aurrez aditu ez dituen esaldi edota egiturak sortzeko. Baina entzuten duen informazio guztia ez da baliagarria izango, baldintza batzuk kale egiten badute; jasotako informazio hori "hotsa" bakarrik izan daiteke kasu horretan. Horregatik garrantzitsua da input horretatik intakea bereiztea. Bigarren hau da ikasleak inputetik hautatzen duen eta bere egiten duen zatia. Garrantzitsua da beraz, inputak intake gisa funtziona dezan, bete beharreko baldintza guztiak betetzea. Baldintza garrantzitsuenetariko bat ulermena da eta esan gabe doa, batetik, ulermena egokia izateko, inputa ematen duenak kontuan izan beharrekoa dela parean daukanak hizkuntzari dagokionez izan dezakeen hutsune kognitiboa eta bestetik, giroa lasaia eta eroso izatea komeni dela. Bigarren honek zuzenean garrantzitsua aurrerago azalduko ditugun faktore sozioafektiboetara

Beste alde batetik, outputa edo ikaslearen hizkuntza ekoizpena daukagu. Input ona eta ulergarria izatea nahitaezko baldintza bada ere, ez da nahikoa izango hizkuntza menderatzeko. Hizkuntza batean ondo moldatzeko, ezinbestekoa da, komunikazio-praktikak etengabe egitea eta ulertutako hizkuntza- elementu eta mekanismoak martxan jartzea.

#### 3.2.1 FAKTORE AFEKTIBOAK

Hizkuntza bat ikastea ez da batzuk uste duten bezain prozesu erraza, erabiltzen ikastea esan nahi du eta horrek, derrigorrean, interakzio soziala behar du. Hizkuntza bat ikastea zuzenean dago lotuta hizkuntza hori erabiltzeko gogoarekin, nahiarekin. Honek berarekin dakartza jarrera positiboak eta hizkuntza hori erabiltzen dutenekin jarduteko motibazioa.

Askotan bereiztu egin nahi izan dira faktore afektiboak eta faktore kognitiboak, faktore afektiboek kognitiboek besteko lekua mereziko ez balute bezala, baina ideia hauek ez datoz bat neurozientziaren arloa egindako ikerketekin. Schumannek<sup>4</sup> honela laburtu zituen gaiaren inguruan egindako azterketa neurozientifikoak:

" The brain stems, limbic and front limbic areas, which comprise the stimulus appraisal system, emotionally modulate cognition, so that, in the brain, emotion and cognition are distinguishable but inseparable. Therefore, from a neural perspective, affect is an integral part of cognition"

---

<sup>4</sup> SCHUMANN, John H. (1994): "Where is Cognition? Emotion and Cognition in Second Language Acquisition" Studies in Second Language Acquisition, 16

Burmuinean bereiztu ezinezko bi zatitzat jotzen ditu afektibitatea eta kognizioa eta afektibitatea kognizioaren zati bat dela baieztatzen du.

Gaur egun aditu ugari azpimarratzen dute dimentsio afektiboaren garrantzia bigarren hizkuntza bat ikastean. Faktore afektiboak eta kognitiboak eskutik doaz, bata bestearen osagarri dira.

Arlo honetan faktore afektiboak bi multzotan sailkatzen ditu Jane Arnoldek Affect in Language Learning<sup>5</sup> lanean: norbanako faktoreak eta erlazio faktoreak.

### 3.2.1.1 NORBANAKOAREN FAKTOREAK

Lehen multzoko faktore hauek ikaslearen izaera edo pertsonalitatea osatzen duten ezaugarriekin daude lotuta. Nahiz eta hizkuntza besteekin harremanetan ikasten den, ikasketa prozesu horretan zeresan handia daukate ikaslearen pertsonalitatearen ezaugarriek. Norberak bere burua nola ikusten duen eta gaitasunik aitortzen dion edo ez hizkuntza bat ikasteko ikasketa prozesua arindu edo oztopatu dezakeen faktore bat da. Ondorioz, ikaslearen barne faktore horiek eragin erabakigarria dute. Eragin hori positiboa edo negatiboa izan daiteke (edo gauza batzutan positiboa eta beste batzutan negatiboa). Faktore hauek hizkuntzaren jabeakuntza baldintzatzen dute eta estuki daude lotuta euren artean, hain estuki, ezen batzuetan ia ezinezkoa baita bata bestearengandik bereiztea. Jarraian deskribatu ditugu horietako bakoitza

#### 3.2.1.1.1 ANTSIETATEA

Antsietatea da ikasketa prozesua indar handinez oztopatu ohi duen faktorea. Antsietatea sentimendu negatiboekin dago lotuta (frustrazioa, segurtasun eza, beldurra, tentsioa...). Heronen arabera<sup>6</sup> hiru osagai ditu antsietateak: onarpenaren antsietatea (taldean onartuko al naute? Euren gustukoa izango al naiz?), orientazio antsietatea (ulertuko al dut gertatzen dena?) eta ekintza-antsietatea (ikasitakoa praktikan jartzeko gai izango al naiz?). Hiru faktore hauek oso interesgarriak dira eta ikasgelan kontuan hartzekoak.

Antsietatea eragiten duten arrazoiak ez dira beti berdinak izaten, hizkuntza ikasteko prozesuan zehar gertatutako ekintza konkretu batetik sortutakoak izan daitezke (ridikuluaren sentitzea/ uztea ikaslea momenturen batean), baina ikasleak bizi duen egoera sozio-ekonomiko-kulturalak eragindakoa ere izan daiteke. Gure kasuan, EAera etorri diren eta lehen hizkuntza euskara edo gaztelera ez duten haurren kasuan, antsietatea eragin dezaketen faktoreak ugariak izan daitezkeela suposa dezakegu, esate baterako:

- Jatorrizko kulturatik harrera gizarteko kulturarako distantzia, talka kulturala eta honek ekar dezakeen antsietate edo estresa.

---

<sup>5</sup> ARNOLD, Jane (1999): Affect in language learning. Cambridge University Press

<sup>6</sup> In Arnold eta Brown (1999): "A map on the terrain", in ARNOLD, Jane (1999) Affect in language learning. Cambridge University Press

- Harrera gizarteko hizkuntzarik ez ezagutzea eta, ondorioz, komunikatzeko zailtasunak izatea
- Ondo ezagutzen ez duen eta, beraz, esan nahi duena segurtasunez adierazteko balio ez dion hizkuntza batean hitz egin beharra
- Taldean onartua izatearen zalantza
- Gertatzen dena ez ulertzea (bere jatorrizko kulturen kode desberdinak erabiltzen direlako, adibidez)
- ...

Hizkuntza irakasteko erabiliko metodologia ere izan daiteke, neurri batean, antsietatea eragiten duen beste faktore bat. Gaur egun erabiltzen diren metodologiak komunikazioa izan ohi dute helburu eta besteekiko etengabeko interakzioan oinarritzen dira, hizkuntza ikasten hasi eta berehala berau erabiltzen hasten dira ikasleak. Metodologia honek garai batean erabiltzen ziren gramatika- itzulpen metodologiak baino antsietate gehiago eragin dezaketela esan daiteke, metodologia haiek ez baitzuten eskatzen besteekin etengabeko harremana eta ikasitakoa praktikan jarri beharra. Dena dela, zalantzarik ez dago gaur egun emaitza hobek ematen dituztela komunikazio helburu duten metodologiak; horrenbestez, ezinbestekoa da ikasgelan emozionalki seguru sentitzea ikasleak, eroso eta lasai, antsietate maila ahalik eta baxuena izan dadin.

Azken batean antsietatea gorpil zoro bat da: beldurra eta urduritasuna eragiten ditu, horrek, aldi berean, ikaslearen errendimenduak behera egitea. Errendimendu baxu horrek, berriz, antsietate handiagoa eta errendimendua oraindik eta gehiago jaitea...

Ikasleak egoera horretara iritsi ez daitezene bereziki zaindu beharreko aspektua dugu hau, beraz.

#### 3.2.1.1.2 INHIBIZIOA

Inhibizioa akatsak egitearekin dago lotuta. Lehen hizkuntza ikasteak akatsak egiten genituen, hizkuntza guztiak ikasteak egiten dira akatsak, baina umetan inhibizioa ez dago eta horrek gehiago arriskatzera eramaten gaitu.

Inhibizioa umeei besteengandik desberdina den "ni" a identifikatzen hasten direnean eta euren profil afektiboa eratzen hasten direnean sortzen da. Kontzientzia maila handitu ahala, egoerak hori babesteko joera hartzen dugu. Kritika gogorren aurrean egoerak hori oraindik eta gehiago ahultzen da eta ondorioz, inhibizioa handituz joaten da.

Ikasgeletan, beraz, inhibizioaren maila jaisten duten ikas- egoerak sortzerako joerak dugu, komunikazio libreak ateak zabaltzeko. Egoera hauek gerta daitezene Dufeu-k<sup>7</sup> proposatzen du ikasleak gustura sentitzea garrantzitsua dela hizkuntza berria lehen urratsak ematen dituztenean. Hori lortzeko, norberaren buruan izan beharreko konfiantza handituko duen

---

<sup>7</sup> In ARNOLD, Jane (1999) :Affect in language learning. Cambridge University Press

onarpen- giroa behar da eta horrek esperimintatzen eta hizkuntza ezagutzera eramango ditu, arriskatzeko aukera emanda, baina lotsarik sentitu gabe.

Hasieran esan bezala, inhibizioa hizkuntza berri bat ikastean egiten ditugun akatsekin dago lotuta. Akatsak egiten ditugunean gure barruko nahiz kanpoko kritikak jaso ditzakegu. Akats bat egiten dugun bakoitzean gure barruko "ni" kritikoak egindako akatsak kritikatu dituzte eta kanpotik ere kritikak jaso ditzakegu hizkuntza berriari akatsak egiteagatik. Irakasleek, beraz, kontuan hartu beharreko faktorea da inhibizioarena akats konkretuen zuzenketak egiten dituztenean.

#### 3.2.1.1.3 BARRENKOITASUNA ETA KANPOKOITASUNA

Batzutan inhibizioa eta barrenkoitasuna nahastu egiten ditugu. Kanpokoak diren pertsonak hizkuntza berri bat ikasteko gaitasun handiagoa dutela ematen du, harremanak egiteko joera handiagoa izaten dute eta hiztunak izan ohi dira, ondorioz aukera gehiago bilatu eta topatzen dituzte praktikatzeko.

Pertsona barnerakoiak, berriz, isilagoak izan ohi dira eta autokontrol gehiago izan ohi dute, horregatik pentsatzen da hizkuntzak ikasteko gaitasun txikiagoa dutela. Errealitatean kanporakoitasuna kanpoko pertsonen "ego" a eta autoestima gorai patzearekin dago lotuta eta barrenkoiek, aldiz, sentimendu hauek euren baitatik ateratzen dituzte. Ezaugarri hau, beraz, ez dago lotuta inhibizioa eta egoaren mailarekin.

Gaur egungo azterketek ez dute argitzen hizkuntza ikasteko bi hauetatik ze ezaugarri den egokiena; dena dela, argi dago ikasgelako jarduerak mota batzuk egokiagoak izango direla kanpokoientzat eta beste batzuk barrenkoientzat. Irakasleek kontuan izan behar dituzte ezaugarri hauek jarduerak proposatzean.

Puntu honekin bukatzeko, komeni da esatea, irakasleek kontuan izan behar dituztela ikasleen ezaugarri edo kode kulturalak. Kultura batean jokaera kode egokia den portaera bat barrenkoitasunarekin nahastu baitaiteke, esate baterako.

#### 3.2.1.1.4 AUTOESTIMA

Autoestima pertsona bakoitzak bere buruari egiten dizkion etengabeko ebaluazioekin dago lotuta. Autoestima ezinbesteko baldintza da jarduerak kognitibo eta afektiboak arrakasta izan dezaten. Gure autoestima perzibitzen joaten gara gure barruko esperientzietan eta kanpoko munduarekin izandako harremanetan oinarrituta.

Gure "ni" az dugun kontzeptuaren oinarria umetan eratzen da. Sinesmenak, jarrerak eta oroitzapenak jaso ahala ideia eta esperientzi horiek gure "ni" aren pertzepzio horren arabera garatzen dira.

Autoestima hiru mailatan deskribatu daiteke: autoestima orokorra, egoera jakinetako autoestima (egoera konkretu batean gure buruaren gainean egiten dugun balorazioa) eta

eginkizun konkretuetako autoestima (egoera konkretu bateko eginkizun konkretu batean zentratzen dena).

Hizkuntza irakaskuntza ere autoestima sustatzen duen egoeretan egiteak arrakastarako aukerak gehituko ditu. Haur batek esperientzia arrakastatsu bat izan badu (hizkuntza bat ondo ikasita, esaterako) autoestimaren zakua betea izango du eta honek eramango du beste hizkuntza bat ikasteko gaitasuna baduela sinistera eta ikasketa horretan "arriskatzera". Esperientzia txarra izan duen beste ikasle batek ordea, "arriskatzeko" gaitasun gutxiago izango du aurreko esperientzia txarraren ondorioz eta, hauek ere, kontuan hartu behar dira.

Irakaslearen lana izango da ikasle hauekin aldiro gutxi arriskatuta urrats sendoak ematea eta aldi berean bere autoestima zakua betetzen joatea hurrengoan "arriskatzea" gutxiago kostatzen.


Kontuan hartu behar da etorkinen kasuan askotan egoera sozial eta ekonomiko zailak bizi izaten dituztela harrera gizartean eta honek ere haurren autoestimari eragina izan dezake, bere burua beste ikasleen maila berean ez ikustearen ondorioz.

### 3.2.1.1.5 MOTIBAZIOA

BHK ikasteko faktoreen artean oinarri-oinarrian dagoen beste faktore bat motibazioa da. Chomsky-k (1998:181) adierazten du erabat garrantzitsua dela ikaslearen motibazioa aktibatzea. Bere arabera, ikasketa prozesuaren %99 ikasleak materialaren gaineko interesa edukitzeak baldintzatzen du.

Hauze litzateke motibazioaren definizioa: Ekintzak abian jartzeko mugitzen gaituen indarra da, indibidua zerbait egitera bultzatzen duen barne-prozesua, bultzada horren bitartez barne edo kanpo gertaeraren bat eragiten duena. Motibazioa eta portaera baten zergatia bat datozela esan dezakegu.

Jose Maria Sánchez Carrión, Txepetxek<sup>8</sup>, ere motibazioa hartu zuen hizkuntza bat menderatzeko hiru oinarrietako bat bezala, ezagutza eta erabilerarekin batera.



Motibazioa, ezagutza eta erabilera dira, Txepetxen teoriaren arabera, hizkuntza bat menperatzeko hiru zutabe edo "ontzi" nagusiak.

<sup>8</sup> SANCHEZ CARRIÓN, J.M., «Txepetx»(1987): Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas. ELKAR, Donostia

- Motibazioa: Hizkuntza bat ikastera edo hizkuntza batean irautera -hots, hizkuntza jakiten eta mintzatzen jarraitzea- bultzatzen duten arrazoiak, desioak edo interesak.
- Ezagutza: Hizkuntzaren funtzionamenduaz jabetzeko prozesua zein ahalmena.
- Erabilera: Hiztun komunitatearen hizkuntz funtzioetako edozeinetan jardutea.

Hiru ontzi hauek ezberdin betetzen dira kasuen arabera. Hortaz, Txepetxek bi ikasketa prozesu bereizten ditu:

- Ibilbide naturala (A): Haurren ikasketa-prozesua da, inkontzientea, lehen hizkuntza ikasteko prozesua. Prozesu honek hizkuntzaren erabilera du abiapuntua, umeek entzun eta hitz egiten baitute hizkuntzaren mekanismoek jabetu gabe ondoren, hizkuntza erabiltzearen poderioz, umeek handitzen eta hobetzen dute hizkuntzaren ezagutza; eta azkenik, hizkuntza gero eta hobeto dakitela konturatzean, umeengan hizkuntzarekiko motibazio positiboa sortzen da.

A ibilbidea gizarteratze prozesua da, umea gizarte identitate gainjarriak dituzten esparruetan pixkanaka sartzen du: familia, eskola, herria...

- Ibilbide kulturala (B) izango litzateke BHeen ikasketa-prozesua. Ikasketa ibilbide kontzientea da eta motibaziotik abiatzen da: pertsona motibaturik dagoenean hasten da hizkuntza ikasten edo ezagutzen, eta ondoren, zenbat eta hizkuntza hobeto ezagutu, gehiago eta hobeto erabiltzen du. B ibilbidea indibidualizazio prozesua da, norberak beste hizkuntza batek -edo batek baino gehiagok- hartuta zeuzkan espazioak zabaltzen baitizkio ikasten dabilen hizkuntzari.

Txepetxek ibilbide kulturalaren azalpena pertsona nerabe edo helduen jabeak erabiltzeko prozesuak azaltzeko erabiltzen du batik- batik, baina jabeak erabiltzeko prozesu orotan kontuan hartu behar den faktorea da, haurretan ere bai, aparteko tokia merezi duena.

Edozein hizkuntzaren ikasketa-prozesuan fase batetik beste batera igaro ahal izateko (hau da, B ibilbidean motibaziotik ezagutzara eta ezagutzatik erabilerara salto egiteko eta A ibilbidean erabileratik ezagutzara eta ezagutzatik motibaziora) ezinbesteko baldintza da ikaskuntzaren aurrerapenaren adierazlea den nahikotasun maila erdiesteia:

- Ume batek hizkuntzaren erabilera-maila egokirik ez badu, inola ere ez du hizkuntza horren maila fonetiko, lexikal edo gramatikal egokia lortuko. Era berean, hizkuntza erabiltzen hasi den umeak bere adineko beste edozein hiztunen hizkuntzaren ezagutza maila lortzen ez badu, oso zaila izango da hizkuntzarekiko haren motibazioa nahikotasun mailaraino heltzea, eta gainera, motibazio maila hori seguruenik beste hizkuntza batean aurkituko du.
- BH ikasten ari diren haurren kasuan ere motibazioa hizkuntza ikastera bultzatzeraino heldu behar da. Gero, pertsona horrek hizkuntzaren egitura eta sistemaren barneratze nahikoa lortu behar du hizkuntza erabili ahal izateko. Eta hizkuntza modu egokian erabiltzen duela konturatu orduko, pertsona hori are motibatuago egongo da gehiago ikasteko. Baina, nahasmendu eta konfiantzarik ezaren ondorioz,



erabileran hutsunea egonez gero, ahultzen joango da hizkuntzarekiko hasierako motibazioa.

Motibazioa lotuta dago, beraz, ikasleak hizkuntza bat ikasteko dituen arrazoiekin, baina gakoa hau da: zerk sortzen du motibazioa?

Arrazoiak mota askotakoak izan daitezke eta, ondorioz, motibazioa bera ere kategoriatan desberdinetan aztertu eta sailkatu izan da.

Psikologia ikerlariek motibazioa bi eratakoa dela esaten dute: barrukoa eta kanpoko. Kanpoko motibazioaren sorburua sari bat lortzea edo zigortua ez izateko nahia da. Fokoa edo arrazoiak kanpoan legoke. Barruko motibazioan, aldiz, norberak zerbaitengan duen interesa izaten da arrazoi nagusia.

Kanpo motibazioa, egoera jakinetan, ona izan daitekeen arren, badirudi barne motibazioak edozein ikasketa prozesutan eragin gehiago eduki dezakeela, batez ere denboran izan dezakeen iraupena kontuan hartuta (badirudi barne motibazioak denboran gehiago irauten duela kanpokoak baino). Ikastetxeetan kanpo motibazioa bultzatzeak ez dirudi modu egokiena denik ikasleak motibatzeke, egoera hauetan ikasleak helburuak edo nahia hezitzaileari atsegina ematea bihur baitaiteke, murgiltze ereduetan lehen hizkuntza gaztelera edo frantsesa duten haurren kasuan gertatu izan den bezala<sup>9</sup>. Badirudi hizkuntzen arloan barne motibazioa eraginkorragoa dela, euren arrazoi pertsonalengatik ikastea, konpetentzia eta autonomia lortzeko, baina askotan horretan lagun dezake kanpo motibazioak ere, barne motibazioa areagotzen.

BHren jabeak eragiten, motibazioari dagokionez, gehien erabili den bereizketa sozio-psikologikoa da. Honek motibazio integratzailea eta motibazio instrumentala bereizten ditu. Bereizketa hau R. C. Gardner eta W. E. Lambertek egin zuten lehendabizikoz, 70. hamarkadan. Euren arabera, motibazio integratzailea lotuta egongo litzateke harrera gizarteko gizataldeko kide izateko eta gizatalde horrek bera ezagutzeko izan dezakeen interesa edo nahiarekin, hurbiltzeko eta integratzeko desira da motibazio mota honen bultzatzailea. Motibazio instrumentala, aldiz, arrazoi praktikoagoekin lotuta egongo litzateke, esate baterako, lan hobea lortzea, azterketa bat gainditzea....

Asko eztabaidatu da bi motibazioetako zein izango litzatekeen hizkuntza jabeak eragiten laguntzailerik onena eta honetan ere ez dago ondorio argirik. Alde batetik, badirudi motibazio integratzailea lotuago dagoela hizkuntza bat ikasteko prozesuak eskatzen duen denbora luzearekin; eta bestetik, hizkuntza batez jabetzean arrakasta izateak (instrumentala) ikasten jarraitzeko motibazioa sorraraziko luke. Funtsean, biak konbinatzeak eskainiko litzuke baldintza onenak hizkuntza jabeak eragiten arrakastatsua lortzeko.

### 3.2.1.1.6 IKASTEKO ESTILOAK

Jakina da ikasle guztiek ez dutela ikasteko modu bera erabiltzen, ikasgeletan begirada bat bota besterik ez dago.

---

<sup>9</sup> SANZ, P.; RUIZ BIKANDI, U. et al. (1984): "Análisis de una enseñanza bilingüe" in SIGUÁN, M (koord): Adquisición precoz de una segunda lengua, ICE, Bartzelona

Arlo honetan irakasleak kontziente izan behar du gelako heterogenotasunaz eta jarduerak hori kontuan hartuta prestatzea litzateke egokiena.

Beste kultura batetik datorren ikasle baten kasuan ere, kontuan hartu beharko da bere jatorrizko herrialdeko eskoletan lantzen diren ikasketa estiloak agian ez direla bat etorriko hemengoekin. Aniztasuna eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu beharko dira aspektu hau lantzerakoan ere.

### 3.2.1.2 ERLAZIOZKO FAKTOREAK

BHak ikasteko garaian, ordea, ez gara pertsona bakoitzari dagozkion ezaugarrietan bakarrik zentratzen; hizkuntza bat ikasteko prozesuan arreta handia jarri behar diegu erlazionatzeko faktoreei.

Hizkuntza bat ikasi eta erabiltzea prozesu transakzionala da, hau da, gure baitatik atera behar gara bestearengana iristeko eta hau estu lotuta dago ikaslearen emozioekin. Hizkuntza jabetuntza prozesuak ikuspuntu sozialetik begiratzen baditugu, testuinguru sozialeko elementuek garrantzia azpimarragarria dutela ikusiko dugu.

Komunitate bat identifikatzeko bi ezaugarri oso garrantzitsu dira: hizkuntza eta kultura. Bi elementu horiek dira identitatea ematen diotenak komunitate bati. Euskara gutxituta dago, ondorioz, euskal kultura ere bai. Hizkuntza minorizatu baten berreskuratzean, inguruko hizkuntza eta kulturekin ukipen egoera bat dagoela kontuan hartu behar dugu eta honek ezinbestean eragingo die euskararen egoerari eta euskara ikasteko baldintza sozialei.

Hori horrela izanik, faktore sozial horietako batzuk aztertuko ditugu jarraian.

#### 3.2.1.2.1 IDENTITATEA:

Identitatea talde bateko kide izateko sentimenduarekin dago lotuta eta honek ezinbestean dauka lotura aukeratutako perfila (lehen hizkuntza ez euskara ez gaztelera) duten ikasleen kasuan: EAEn lehen hizkuntza errumaniera duen eta eskolan euskara eta gaztelera ikasten ari den ume bat nongoa sentitzen da? Nongoa dela kontsideratzen du gizarteak, oro har? Eta eskolak?

Pertenentzia sentimenduak zuzeneko lotura du hizkuntzaz jabetzeko prozesuarekin: helburu hizkuntza hitz egiten duen taldeko kide sentitzen ez bada eta guk ere talde horretako kide dela transmititzen ez badiogu, prozesu horretan porrot egiteko aukerak handiagoak izango dira arrakasta lortzeko izan ditzakegun aukerak baino.

Amelia Barquinek idatzitako artikulu baten gai nagusia horixe da "Nongoak dira etorkinen seme-alabak?"<sup>10</sup> eta bertan ideia interesgarri batzuk adierazten ditu identitatearen eraikuntza eta eskolaren paperari dagokionez.

---

<sup>10</sup> BARQUÍN, Amelia (2009): "De donde son los hijos de los inmigrantes: La construcción de la identidad y la escuela. Educar, 44 :81-96

Jakina denez, identitatea, bizi osoan zehar eraikitzen goazen kontzeptua da. Jordán Sierra, Castilla Castilla eta Pinto Isernek horrela definitzen dute (in Barquín, 2009):

[...] lo que «uno es» (en el ámbito de preferencias, conductas y valores) en virtud de la adhesión psicológica a una comunidad cultural que le ofrece una forma de vivir y de interpretar la realidad. Proporciona, en principio, la seguridad psicológica necesaria para dar sentido a las experiencias externas, una guía para canalizar la inmensa potencialidad de la persona y la satisfacción de la necesidad de afiliación social.

Identitatearen eraikuntza prozesu konplexua da eta txikitatik eraikitzen doa. Immigratutako familien kasuan, hurrek erreferentziako bi talde dituzte: etxekoa (gurasoek transmititua, euren jatorrizko herrialdeko taldeko kide izatea) eta eskolakoa (irakaslea eta ikasleak erreferente nagusi direna, bertako taldeko kide izatea). Eskolak, beraz, paper aktiboa du identitatearen eraikuntzan eta horretaz kontziente izan behar du eskola komunitateak.

Aditu batzuk gaur egun asko erabiltzen den "haur etorkin" terminoa baztertu egiten dute. Horretarako arrazoi nagusia da ez dutela hurrek eurak erabaki beste herrialde batera joatea, euren guraso edo familiek baizik. Gainera kontzeptua hau erabat kontraesanean egongo litzateke gaur egun defendatzen den eskola inklusiboarekin. Eskola inklusiboak ikasle bakoitzaren ezaugarriak hartzen ditu kontuan (izan ezaugarri kulturalak, fisikoak...) eta ikasle bakoitza den bezala onartzen du, bere ezaugarriekin. Helburua ikasle bakoitzaren abilezia eta trebetasunak garatzea da.

Artikuluari aipatzen den beste ideia bat identitate anitzarena da. Gure eskoletan identitate anitzak bultzatu behar ditugula dio Barquínek eta horretaz kontziente izan behar garela ere bai. Amin Maaloufen "Identidades asesinas" entseguko pasarte honek argitzen du zer den identitate anitzak diogunean esan nahi dena:

"Un joven nacido en Francia de padres argelinos lleva en sí dos pertenencias evidentes, y debería poder asumir las dos. Y digo dos por simplificar, pues hay en su personalidad muchos más componentes. Ya se trate de la lengua, de las creencias, de la forma de vivir, de las relaciones familiares o de los gustos artísticos o culinarios, las influencias francesas, europeas, occidentales, se mezclan en él con otras árabes, bereberes, africanas, musulmanas... Esa situación es para ese joven una experiencia enriquecedora y fecunda si se siente libre para vivirla en su plenitud, si se siente incitado a asumir toda su diversidad; por el contrario, su trayectoria puede resultar traumática si cada vez que se confiesa francés hay quienes lo miran como un traidor, como un renegado incluso, y si cada vez que manifiesta lo que le une a Argelia, a su historia, su cultura y su religión es blanco de la incomprensión, la desconfianza o la hostilidad."

Eta hauxe da askotan gure gizartean immigratutako familiekin eta euren seme- alabekin gertatzen dena: euren jatorrizko herrialdean hemengotzat hartzen dituzte eta hemengo gizartean kanpotartzat.

Pertsonen garapenean arriskutsua izan daiteke "inongoa ez izateko" sentimendu hori. Ildo honetan Etxague, Cenoz eta Uriak<sup>11</sup> identitate kultural gehigarriaren kontzeptua proposatzen dute. Lehenengoz Lambertek erabilitako eta aurrerago ikusiko dugun elebitasun gehigarriaren kontzeptuarekin dago lotuta. Norberarena mantendu eta errespetatu eta beste identitate kultural bat eskuratzen duen norbanakoak identitate kultural bat gehiago gehituko dio lehendik daukan horri, aberastu egingo du eta ez du lehendik daukana alde batera utziko beste talde bateko kide sentitzeko. Hauxe litzateke bultzatu beharreko jarrera.

Herri bateko kultura adierazle ugariarekin dago osatuta, baina herri horretako pertsonen identitatea sortzeko eta garatzeko ezinbestekoa da hizkuntza Garabidek argitaratutako Euskararen berreskuratzea<sup>12</sup> liburuan honela azaltzen da:

"Hizkuntza eta identitatea uztartuta daude. Maila indibidualean, pertsonen identitatea ez du hizkuntzak bakarrik osatzen, baina hizkuntzaren bidez gara edo adierazten gara. Hizkuntzaren bidez haurrak bere nortasuna hartzen du, pertsona izatearen ezagutza hizkuntza horren bidez heltzen zaio, horixe baita bere barne pentsamenduaren hizkuntza"

Identitate kolektibora jauzi eginez, berriz, hauxe dio Garabidek

"Identitate kolektiboetan ere oinarri nagusietako bat da hizkuntza. Izan ere, hizkuntzek herri bakoitzaren ezagutza gorde dute belaunaldiz belaunaldi, eta belaunaldi bakoitzak ezagutza berriak gehitu dizkio. Hizkuntzak gordetzen ditu bere hiztunen komunitateak mendeetan landu eta garatu dituen jakinduria eta ezagutza, mundu ikuskera, ohiturak, tradizioa...hizkuntzarekin lotzen dute errealitatearen balorazioa eta bestelako interkomunikazioa"

Hizkuntza, beraz, izan daiteke, beste elementu batzuen artean, identitate emaile. Gehiago, gainera, gutxitutako hizkuntzekin. Carme Junyent hizkuntzalariak horren gaineko hausnarketa interesgarria egiten du<sup>13</sup>. Bere arabera gutxitutako hizkuntzak ikasteak identitatea ematen du. Gutxitutako hizkuntzek badute beste hizkuntzek ez duten abantaila bat: hizkuntza hori hitz egiteak taldean sartzea ahalbidetzen du. Leku egokian jaio ez dena ez da sekula ingelesa izango hizkuntza hori primeran menperatu arren, baina beste hizkuntza batzuek (gutxitutakoek, kasu) identitatea ematea lortzen dute. Kasu horietan hizkuntza ikasten dutenek "naziotasuna" lortzen dute (nazio- identitatea), paperik eduki ez arren, eta hau integratzeko aukera da eurentzat. Euskararen normalizazioaren ikuspegitik ideia honi etekin handia atera dakioke eta ideia hau transmititzen asmatu beharrean gaude, gu baikara euskaldunon hiztun komunitatera jende gehiago biltzeko interesa dugun lehenengoak.

<sup>11</sup> ETXAGUE, X.; CENOZ, J eta URIA, M.(2010): "Inmigración, lenguas oficiales y educación en el País Vasco" in CENOZ, J eta ETXAGUE, X (koord) inmigración y aprendizaje de lenguas en comunidades con dos lenguas oficiales. Segundas lenguas e inmigración, 2010 ekaina

<sup>12</sup> GARABIDE Euskararen berreskuratzea, hizkuntzak berreskuratze gako batzuk

<sup>13</sup> Carme Junyent-i elkarrizketa (2005): ARGIA aldizkaria 1980. alea

### 3.2.1.2.2 ENPATIA

Enpatia deitzen diogu beste pertsona baten larruan jartzeari, mundua bere begiekin ikusteko saiakera egiteari, baina horretarako ez dago zertan norberak gauzak ulertzeko duen modua edo sentitzeko era aldatu eta ezta besteen iritzi edo pentsakerarekin bat etorri behar ere.

Argi dagoena da besteen tokian jartzeko gaitasuna izan baino lehen norberaren sentimenduen kontzientzia hartu eta ezagutzea komeni dela, gero, besteengana hurbiltzea errazagoa izan dadin.

Euskara eta gaztelera lehen hizkuntzat ez dituzten haurren kasuan, autoktonoen kulturarekiko distantziak (kasu gehienetan) eta mundu ikuskera desberdinek ikasleen arteko enpatia berariaz eta etengabe lantzeko aukera eman beharko liguke ikasgeletan. Enpatiak ez dauka beti lotuta egon beharrik kultur aniztasunarekin, baina kultur aniztasunaren kudeaketak enpatiarekin lotuta egon beharko luke, bertako hizkuntza eta kulturarekiko jakinmin positiboa piztu nahi badugu eta eurak gerturatzea nahi baldin badugu, derrigorrean gerturatu beharko baikara beste kultura eta hizkuntzetara.

Eskeletan, oraindik zehazki ikertu gabe dago ze erlazio dagoen enpatia eta hizkuntza berri baten jabeakuntzaren inguruan, baina intuizioak diosku eragina handia dela edo handia izan daitekeela enpatia kudeatzeko moduan asmatzen bada. Kontuan hartu beharreko kontua da, beraz, ze jarduera motak sustatzen duen ikasleen arteko enpatia ikasgelan

### 3.2.1.2.3 KULTURANIZTASUNAREN KUDEAKETA

BHen irakaskuntzak askotan kultura desberdinen arteko talkak sortzen dituen gatazkek sortutako zailtasun emozionalekin egiten du topo. Bigarren hizkuntza bat ikasteko garaian ikasleak ez du topo egiten hizkuntza berri batekin bakarrik, hizkuntza hori barne hartzen duen kultura ere hor dago. Kultura gizarte bateko kideek beraien artean harremanak egiteko eta mundua ikusteko erabiltzen dituzten sinesmen, balore, ohitura eta jarreraren sistema da eta oso estuki dago lotuta hizkuntzarekin.

Beraz, bigarren hizkuntza bat ikastearen interakzioan sartuko da ikaslea kultura berri batekin. Schumann-ek akulturazioa deitzen dio helburu hizkuntzako komunitatearekiko integrazio sozial eta psikologikoari eta akulturazio horren arabera dela dio BHren jabeakuntza, zuzenean lotuta daude bere ustez. Horregatik ikaslea prest egon behar da kultura berri bateko elementu batzuk bereganatzeko; bestelakoan, bi kulturen arteko interakzio hau zerbait negatiboa bezala bizitzen bada, honek estresa eta antsietatea sortuko dio (kultura-talka edo akulturazio estresa delakoa) eta desorientazioa eragingo.

Harrera gizarteko kulturarekiko interesa izan dezan eskatu behar badiogu ordea, ezinbestekoa izango da harrera gizarteko kulturaren jabe direnek hizkuntza berria ikasten ari direnen kultura baloratzea ere. Baztertu egin beharko litzateke asimilazio kultural eta linguistikoa bilatzen duten ereduak (euren jatorrizko hizkuntza eta kultura utzi eta harrera gizartekoa hartzeari deitzen zaio asimilazioa), aniztasuna baloratzen duten ereduak ikuspegia landu beharko litzateke. Jatorri ezberdinetako pertsonak euren gaitasun guztiak

garatu ahal izango dituzte euren jatorrizko herrialdeetako oinarriko elementu kulturalak mantentzeko aukera baldin badaukate. Banks- en<sup>14</sup> ustez estatu edo nazio bateko kultura nagusiak beste kultura, hizkuntza eta esperientziei tokia egin beharko lieke, bere egin beharko lituzke; horrela bertako kultura aberastea lortuko litzateke eta baztertutako pertsona taldeen errekonozimenduan ere lagunduko luke.

Hau eskolako eremura eramanez gero, ezinbestekoa zaigu kulturazintasuna kudeatzea lotura afektibo, gehigarri eta borondatekoen bidez jatorri desberdinetako ikasleak ere curriculumera hurbildu daitezten. Nola ordea? Etxague, Cenoz eta Uriak<sup>15</sup> hauek proposatzen dituzte:

- Denek eskubide zibil, sozial eta politiko berdinak dituztela kontsideratu behar da
- Kulturarako sarbidea edozein herritarrek daukan eskubidea da
- Pertsona immigranteak harrera gizarteko kulturarako eskubidea dauka
- Immigranteak eskubidea dauka harrera herrialdeko egoera linguistikoaren berri izateko, kultura adierazpide eta komunikazio bide den heinean.
- Hezkuntza erakundeak eta erakunde sozialek politika eta estrategia inklusiboak erabili behar dituzte
- Eskolak prest egon behar du errealitate kulturazituna errekonozitu eta kulturarteko estrategiak garatzeko.
- Ikasketa zentroak jatorrizko kulturak baloratu behar ditu eta kulturen arteko elkarriketa bideratu.
- Familiek ere parte hartu behar dute eskolarekin batera harrera gizarteko eta jatorrizko kulturako elkarriketa interkulturalak eman daitezten.
- Eskolak familiak duen garrantzia transzendentala azpimarratu behar du, anomia kulturala (ez bateko eta ez besteko ez sentitzea) ekiditeko jatorri desberdina duten ikasleen artean
- Kultura propioa ez da eraiki behar besteen kontra, besteekin baizik, faktore eraikitzaileak eta gehigarriak hartu behar dira kontuan.

---

<sup>14</sup> BANKS, J.A. (2008): "Diversity, group identity and Citizenship Education in a Global Age" in ETXAGUE, X.; CENOZ, J eta URIA, M.(2010) "Inmigración, lenguas oficiales y educación en el País Vasco" in CENOZ, J eta ETXAGUE, X (koord) inmigración y aprendizaje de lenguas en comunidades con dos lenguas oficiales. Segundas lenguas e inmigración, 2010 ekaina

<sup>15</sup> ETXAGUE, X.; CENOZ, J eta URIA, M.(2010): "Inmigración, lenguas oficiales y educación en el País Vasco" in CENOZ, J eta ETXAGUE, X (koord) inmigración y aprendizaje de lenguas en comunidades con dos lenguas oficiales. Segundas lenguas e inmigración, 2010 ekaina

F. Carbonellek ere kulturantzaren kudeaketaren inguruan asko idatzi du eta bat dator Etxague, Cenoz eta Uriarekin denek eskubide sozial, politiko eta zibil berberak eduki behar ditugula esatean. Bere ustetan<sup>16</sup>, gainera, indarra eskubideok denontzat berdina izan daitezen jarri beharko genuke aniztasunak dakarren aberastasunean zentratu baino lehen. Bere esanetan, aniztasuna askotan bazterkeria sozialerako aitzakia moduan erabiltzen da, batez ere pobretutako herrialdeetatik datozen pertsonen kasuetan. Aniztasuna baloratzen jakiteko berdintasun egoera batean egon beharko ginateke lehenik, denok desberdintasunak baino berdintasun gehiago ditugula ulertuta. Integrazioa prozesu bezala ulertzen du "gaur egungo gizarte bazterkeriatik kolektibo bezala askatuko gaituen prozesua" eta prozesu hau abiatu behar dutenak gehiengo soziala osatzen dutenak izan behar dutela dio, eurek baitituzte horretarako tresna eta baliabideak. Horregatik, dio, kulturantzaren kudeaketarekin lotutako jarduerak ez dira immigranteen seme- alabak dauden eskoletan bakarrik egin behar, gizarte horretan gehiengoaren kulturetako kideak ere prest egon behar baitira gutxiengoaren komunitateetako kideak berdintasunean onartzeko. Berdintasunak esan nahi du prest egon behar garelako pribilegioak eta pobrezia ere partekatzen.

Kultura desberdinen arteko bizikidetzak dakarrena ona izango da baldin eta euskal kulturaren oinarriak sendo mantentzen baditugu. Herri batek aurrera jarraitu ahal izango du historian, muinean kultura propioa duen bitartean, eta hortik abiatuta inguruko kulturetatik etengabe elikatu behar du. Euskara gizarte honetan kohesiorako erreminta bezala ulertu behar da, euskara da (edo izan daiteke) kultura eta jatorri ezberdinetako herritarrak bat egin ditzakeen komunikaziorako tresna, bakoitzak bereari uko egin gabe.

Horregatik, eta euskara eta euskal kultura egoera minorizatu batean daudela kontuan hartuta, bizikidetzan eta gizartearen kohesioan oinarritzen diren politikak aplikatzea ezinbestekoa da, beste kulturetako herritarrak euskara eta euskal kulturara gerturatzea lortzeko, beste kultura eta hizkuntzekiko errespetua, ezagutza eta elkarbizitzarako bideak zabalduz. Kulturen arteko trukea gertatzeko eragin egin behar da, beraz, betiere euskara eta euskal kultura ardatz hartuta.

EAEen Hezkuntza Sailak, kulturartekotasuna sustatzeko helburuarekin lotuta, ikastetxeetan HIPlak eta kulturarteko dinamizatzaileen figurak sortu ditu. Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakasleek hizkuntza (euskara) errefortzua inguruan lan egiten dute batik bat ikasle etorri berriekin, baina euren helburuen artean sartzen da ikasle horiek baldintzarik onenetan integratu daitezen lan egitea. Dena dela, ikasleek HIPlaren laguntza, gehienez, bi urtez jaso dezakete eta adituen esanetan, ez litzateke nahikoa denbora izango, hizkuntza berri bat ikasteko, bost urte behintzat behar direla azpimarratzen baitute.

Kulturarteko dinamizatzaileen helburua, berriz, eskolan kulturen arteko elkarriketa sustatzea da, kulturen arteko elkartrukea sortzeko. Bere lana ikasle guztiek aukera berdina izan ditzaten lan egitea da, bai gutxitutako talde kulturetako kideekin eta gehiengo osatzen duten taldeetakoekin lan eginez, gizartean integrazio sozial eta kulturala bultzatzeko. Kulturarteko dinamizatzailea eskoletan egoteko baldintzetako bat eskola horretan aniztasun kulturala izatea da (lehen hezkuntzan estatuz kanpoko ikasle etorkinak %20 baino gehiago

---

<sup>16</sup> CARBONELL, F. (1995): Inmigración: Diversidad cultural, desigualdad social y educación. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid

izatea eta DBHn %10 baino gehiago). Baldintza hauei egin diezazkiekegun kritika batzuk hauek da:

- ikasle guztiak prestatu behar dira gizartean dagoen aniztasuna errespetatu eta aniztasun horretan bizitzeko, horregatik figura hau jatorri ezberdinetako ikasleak dauden eskoletan bakarrik egotea ez da guztiz egokia.
- Portzentaje horiek estatuz kanpotik etorritako pertsonenak dira. Pertsona horiek bakarrik kontutan hartuta ez da kulturaz aniztasuna bere osotasunean kontuan hartzen eta ezta espainiar nazionalitatea lortu duten familietako haurrena ere.

#### 3.2.1.2.4 JARRERAK

Jarrerak ikasleak hizkuntzari eta hiztunei buruz duen posizioak adierazten dute: bigarren hizkuntzan mintzatzen den komunitateari buruz duen iritzia, gizatalde horren eta norberaren hizkuntza- taldearen arteko harremana, hizkuntza hori erabiltzeak gizartean duen esanahiaren irudikapena... faktore horiek baldintzatzen dituzte BHri buruzko pertzepzioak.

Pertsona erreferenteek (gurasoek, ikaskideek, familiak, irakasleek...) helburu- hizkuntzari buruz transmititzen dituzten irudipenek baldintzatzen dituzte jarrera horiek.

Askotan estereotipoek eragin handia dute horretan, bai irakasleen aldetik eta baita ikasleen aldetik ere. Irakasle batek ikasle batzuei buruz izan ditzakeen aurreiritziek baldintzatu egin dezakete gelako ohiko jardunean berari zuzentzea eta honek eragina izango du, aldi berean, ikaslearen jarreraren eta errendimenduan. Alderantziz ere gertatu ohi da, ordea, ikaslearen BHren jabeakunzia prozesuarekiko espektatiba positiboa izanez gero, errendimendua eta motibazioa areagotzen dira.

Gai honen inguruan jatorri ezberdina duten ikasleekin egindako ikerketa lan batzuk<sup>17</sup> argi utzi dute eskolan eta gizartean baloratuta eta integratuta sentitzen diren ikasleek jarrera hobekak dituztela ikasi behar dituzten hizkuntzekiko (azterketa honen kasuan, katalana eta gaztelera).

Ikasle hauek ikasi beharreko hizkuntzarekiko (edo hizkuntzekiko) jarrera positiboa izatea nahi badugu, ordea, ezinbestekoa da ikaskide eta irakasleak bere hizkuntza eta kulturarekiko jarrera positiboak izatea. Ildo horretatik, European kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean ikasle guztiei jarrera, gaitasun eta jakintza positiboak sortu nahian EOLE<sup>18</sup>, EVLANG<sup>19</sup> eta JA- LING<sup>20</sup> programak jarri izan dira martxan. Jarrera positiboak kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean, gaitasun positiboa hizkuntzaren ikaskuntzan gaitasun metalinguistiko eta kognitiboen aurrean eta jakintza positiboa munduan hizkuntzen inguruan bizi diren gai errealean inguruan. JA- LING programa Euskal Herriko ikastetxe batean behintzat jarri zen martxan eta emaitzak onak lortu zituztela azpimarratzen dute Aramaiok eta Ortegak.

<sup>17</sup> LAPRESTA, C.; HUGUET, A. eta JANÉS, J (2010): "Análisis discursivo de las actitudes lingüísticas de los escolares de origen inmigrante en Cataluña". Revista de Educación, 353. 2010 iraila- abendua

<sup>18</sup> ARAMAIO, Itziar (2003): "Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan" HIK HASI 77.alea

<sup>19</sup> ARAMAIO, Itziar (2003): "EVLANG europar programa," HIK HASI 79.alea

<sup>20</sup> ARAMAIO, I. eta ORTEGA, I. (2006): "JA- LING etorkinak eta gu batzen", HIK HASI 112.alea



#### 3.2.1.2.6 FAMILIEKIKO HARREMANA

BHren jabeakuntza prozesuan familiaren papera garrantzitsuada erabat, aspektu bat baino gehiagotatik.

Batetik, eta ondoren ikusiko dugun bezala, lehen hizkuntza mantentzea gakoa da ondoren beste hizkuntza batzuk ikasi ahal izateko. Lehen hizkuntzaren (edo hizkuntzen) transmisioa familiaren esku dago batik bat; baina eskolak ere bide horretan laguntzeko eginahalak egin behar ditu. Eskolaren esku egongo da, kasu hauetan, lehen hizkuntza horiei daukaten balioa aitortzea eta hizkuntza horien transmisioa gerta dadin familia gidatzea.

Beste alde batetik, logikoa da pentsatzea ikaslearen familiak eskolarekin izan dezakeen harremanak haurraren jarreretan eragina izango duela. Familiak eskola komunitatean parte hartu behar du eta horretarako bitartekoak jartzea garrantzitsua da oso. Hau ez da immigratutako familien kasuan bakarrik hartu behar kontuan, hurrek euren familiak eskolan eta euren ikasketa prozesu osoan inplikaturik ikusten badituzte, interesa dutela aitortzen badute eta jardueretan parte hartzen badute ikasleentzako gora egingo du.

Hirugarrenik, familientzat harrera gizartearekin integrazeko tresna ezinhobea izan daiteke eskola eta hala izan behar du. Integrazioa, ordea, norabide bat baino gehiagotakoa izan behar da arrakastarik izango badu eta eskolarentzat ere positiboa da ikasleentzako harremana edukitzea, integrazioa norabide bikoia izan dadin. Ruiz Bikandi eta I. Mireten arabera<sup>21</sup> gurasoen parte hartzea bermatzen bada gurasoek eskola hartuko dute beraiek kontuan hartzen dituen erakunde bezala eta hori positiboa izango da bai gurasoentzat, bai eskolaren tzat eta baita ikasleentzat ere.

### 3.3 BHEH JABEKUNTZA ETA LEHEN HIZKUNTZEN TRATAERA

---

Lehen hizkuntzak erabat baldintzatzen ditu bai beste hizkuntza batzuk ikasteko prozesuak eta baita eskolan ematen diren bestelako edukien ikaskuntza prozesuak ere. Lehen hizkuntza pentsamenduaren oinarrian dago eta munduaren ikuskera bat ematen digu, errealitatea ikusteko modu bat. Horregatik, oso garrantzitsua da irakasleak eta familiek horren kontzientzia hartzea eta bitartekoak jartzea lehen hizkuntza hori garatu dadin.

#### 3.3.1 DATU BATZUK ESTATUZ KANPOKO ETORKINEN LEHEN HIZKUNTZEN INGURUAN

Ez daukagu daturik gaur egun EAEko eskoletako ikasleentzako lehen hizkuntzen inguruan, administrazio publikoetatik zein erakundeetatik egiten diren ikerketa eta immigrazio datuen diagnostikoetan ez baita ia lehen hizkuntzen aipamenik egiten.

---

<sup>21</sup> RUIZ BIKANDI, U; MIRET, I: "Hacia una cultura multilingüe de la educación", Textos de didáctica y de literatura, 23. zk

Dena dela, Eusko Jaurlaritzak 2012an argitaratutako Immigrazioaren Herritartasun eta kulturarteko bizikidetzaren plan<sup>22</sup>eko diagnostikotik estatuz kanpoko immigranteen nazionalitate nagusienak zeintzuk diren jakin dezakegu

	1998		2001		2007		2011				
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%			
Guztira	15.198	100,0	Guztira	27.438	100,0	Guztira	98.524	100,0	Guztira	144.551	100,0
Portugal	3.241	21,3	Portugal	4.031	14,7	Kolonbia	11.630	11,8	Errumania	16.220	11,2
Maroko	1.615	10,6	Kolonbia	2.845	10,4	Bolivia	9.568	9,7	Maroko	15.679	10,8
Frantzia	1.130	7,4	Maroko	2.720	9,9	Errumania	8.715	8,8	Kolonbia	12.099	8,4
Alemania	813	5,3	Brasil	1.404	5,1	Maroko	8.627	8,8	Bolivia	11.778	8,1
Erres. Bat.	787	5,2	Frantzia	1.375	5,0	Portugal	7.437	7,5	Portugal	8.674	6,0
Kuba	529	3,5	Ekuador	1.219	4,4	Ekuador	7.436	7,5	Ekuador	6.675	4,6
Estatu Batuak	513	3,4	Erres. Bat.	1.145	4,2	Brasil	4.320	4,4	Brasil	5.736	4,0
Argentina	496	3,3	Alemania	1.013	3,7	Argentina	2.916	3,0	Aljeria	5.421	3,8
Brasil	439	2,9	Kuba	984	3,6	Txina	2.810	2,9	Paraguai	5.146	3,6
Txina	423	2,8	Txina	900	3,3	Argelia	2.532	2,6	Txina	4.746	3,3
Guztira 10	9.986	65,7	Guztira 10	17.636	64,3	Guztira 10	65.991	67,0	Guztira 10	92.174	63,8
Gainerak.	5208	34,3	Gainerak.	9802	35,7	Gainerak.	32.533	33,0	Gainerak.	52.377,0	36,2


ITURRIA: Immigrazioaren Herritartasun eta kulturarteko bizikidetzaren plana, 2012

Eta Ikuspegik argitaratzen duen "Immigrazioaren begirada" aldizkariko "Etorkinak EAEko hezkuntza- sisteman"<sup>23</sup> aletik, beste datuok:

EAEko estatuz kanpoko ikasleak, jatorriaren arabera.2010-2011 ikasturtea

	Guztira	%
Europar Batasuna	4.371	14,4
Europako gainerakoa	749	2,5
Afrikako iparraldea	6.216	20,4
Afrikako gainerakoa	2.619	8,6
Hego Amerika	12.436	40,9
Ameriketako gainerakoa	1.568	5,2
Asia/Ozeania	2.446	8,0
<b>Guztira</b>	<b>30.405</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila



Datuon arabera, ondorioztatu genezake, beti ere estatuz kanpoko immigranteen hizkuntza euren jatorrizko herrialdeetan hitz egiten dena dela suposatuz, zeintzuk izango liratekeen EAEko estatuz kanpoko etorkinen lehen hizkuntza nagusienak. Gehiengo handi batek gaztelera behintzat ezagutuko luke Hegoamerikatik datozela kontuan hartuta (era berean,

<sup>22</sup> IMMIGRAZIOAREN, HERRITARTASUN ETA KULTURA ARTEKO BIZIKIDETASUNAREN PLANA 2011-2013, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

<sup>23</sup> IKUSPEGI (2011): "Etorkinak euskal autonomia erkidegoko hezkuntza-sisteman", Immigrazioaren begirada, 41.zk

estatutik etorritako etorkinek ere gaztelera ezagutuko dutela pentsa dezakegu). Afrikako iparraldetik datozenen artean ohikoena arabiera eta berberea jakitea izaten da, Europar Batasunetik datozenen artean portugesa eta errumaniera eta azkenik Asiako artean Txina izango litzateke jatorrizko herrialde nagusia, beraz txinera ere edukiko genuke. Bospasei lirateke, beraz, EAEko ikasleen artean hizkuntza nagusienak: gaztelera, arabiera eta berberea, errumaniera, portugesa eta txinera, bakoitzaren portzentaiak jakin ezin ditugun arren.

Dena dela, Ikuspegi immigrazioaren euskal behatokiak eta Amarauna- UNESCO etxeak 2008an argitaratu zuten azterlanean<sup>24</sup> EAE eta Nafarroan bizi diren estatuz kanpoko immigranteek erabiltzen dituzten hizkuntzak identifikatu eta jatorriaren arabera sailkatu zituzten. Denera munduko 66 estatutako 100 hizkuntza identifikatu dira.

Bertan ikus dezakegu Amerikatik datozela estatutik kanpoko immigranteen ia % 50 eta 5 hizkuntza propio besterik ez dituztela aitortzen ( aimara, guaraniera, mapudunguna, quechuera eta quichuera). Afrikako kasua, aldiz, bestelakoa da: immigratutako biztanleriaren % 18 dira eta 52 hizkuntza identifikatu dira. Lan honetan estatuz kanpoko immigranteek eurek immigrazio prozesuari buruz dituzten bizipenak jasotzen dira eta horrek hizkuntzengan duen eragina ere bai. Ondorioa hau da: euren hizkuntzekiko jarrerak muturretik muturrera doaz eta batzuk positiboki baloratzen dituzten arren, beste batzuk ahaztu egiten dituzte edo, kasu batzutan, lotsa ere sentitzen dute euren hizkuntzekiko et baztertu egiten dituzte.

Azterketa honetatik ateratzen diren beste ondorio batzuk hauek dira: etorkinek, oro har, oso positibotzak jotzen dute euren jatorrizko hizkuntzekiko interesa agertzea, askok hizkuntza bat baino gehiago dakizkete jatorritik, migrazio- bidean askok hainbat hizkuntza ikasi dituzte, Euskal Herrian gaztelania ikastea da, oro har, gaztelaniarik ez dakiten estatuz kanpoko immigranteen helburua, baina euskara ikasi dutenak ere badira eta hauei hizkuntzak asko lagundu die integratzen, zaila gertatzen zaie euren hizkuntza eta kulturei eustea eta horrek tristura eragiten die.

Beraz, ikasle etorkinen gehiengoaren hizkuntzak bospasei izanda ere, ebidentziak dauzkagu beste hizkuntza asko ere hitz egiten direla esateko, horietako batzuk euren jatorrizko herrialdeetan ere gutxitutakoak.

### 3.3.2. ELEBITASUN GEHIGARRIA ETA ELEBITASUN KENTZAILEA

Elebitasun gehitzaila eta elebitasun kentzailea terminoak Lambertek bereizi zituen. Bere helburua zen hezkuntza elebidunean ematen ziren emaitzen ebaluazioaren arteko aldeak azaltzea, batez ere eskolako eta etxeko hizkuntzak desberdinak zirenean. Lambertek ustez, hizkuntza- jarrera erabakigarria da hizkuntza batez jabetzeko unean. Ezin da ikasi muinean ikasi nahi ez den hizkuntza bat; horregatik uste du hizkuntza batez jabetzera heldu den moduak azaltzen dituela elebiduntasun horren ezaugarriak.

Elebitasun gehigarria izango da pertsona baten lehen hizkuntza eta kultura arriskuan jarri gabe bigarren hizkuntza batez jabetzearen emaitza. Kasu honetan, BHrekiko izango dituen

---

<sup>24</sup> IKUSPEGI (2008): "Hizkuntzak eta immigrazioa", Immigrazioari begirada, 22. zk.

jarrera positiboak izango dira bere ikaskuntza prozesuaren motorra eta beraz, hizkuntza batetik bestera gaitasunak transferitzeko baldintzak emango dira. Transferentzia honek emaitza onak izango ditu bere jabeakuntza prozesuan.

Elebitasun kengarria izango da pertsona horren lehen hizkuntza eta kultura baztertu eta hizkuntza hori "behartuta" ikastearen emaitza. Kasu honetan kontrakoa gertatzen da. BHrekiko jarrera negatiboek BH horren jabeakuntza oztopatzen dute eta pertsona honek ez badu aukerarik bere lehen hizkuntza eremu formal batean lantzeko, ez du gaitasunik garatuko ez batean eta ez bestean.

Elebitasun gehitzailearen helburua lortu nahi badu ezinbestean kontuan hartu beharko ditu eskolak jatorri sozial, kultural eta linguistiko desberdinetako haurrak. Ez bakarrik kontuan hartu, ezagutu eta baloratzeko ere sentiberatasuna eskatuko die hezitzaileei.

### 3.3.3. JIM CUMMINS ETA INTERDEPENDENTZIA LINGUISITIKOAREN HIPOTESIA

Jim Cumminsek 1981ean interdependentzia linguistikoaren hipotesia formulatu zuen lehenengoz eta ondoren birformulatu ere bai, egokitzapenak eginda<sup>25</sup>.

Hipotesi honen arabera, 1Hko gaitasunak eragina du 2Hkoan eta alderantziz. Demagun bi hizkuntza ditugula xH eta yH eta lehen edo BH izan daitezkeela biak ere: "xHn jasotako irakaskuntza xHko gaitasuna bultzatzeko eraginkorra den heinean, gaitasun hori yHra transferituko da baldin eta yHren eraginpean modu egokian egoteko aukerarik bada (eskolan edo ingurunean) eta yH ikasteko motibazio egokirik bada. Norabide bitakoa da eragina.

Teoria honen oinarrian dagoena "azpian datzan gaitasun komuna" da. Norbaitek duen hizkuntza ezagutza adierazten du (pentsatzeko eta komunikatzeko gaitasuna). Ezagutza horrek pertsona horrek dakizkien hizkuntzen azpian datza. Kontzeptuak hizkuntza bidez formulatzen ikasi duenean erlazio horiek bere ezagutzaren parte dira eta dakien edozein hizkuntzatan adierazi edo erabili ahal izango ditu.

Azken ikerketen arabera, azpian datzan gaitasun komun hori ez da pertsona elebidunetan bakarrik hartu behar kontuan, pertsona eleaniztunetan ere kontuan hartzeko faktorea da. Konpetentzia bakarra dagoela azpimarratzen dute, gaitasun metakognitibo oso onak dituen emaitzatat.

Vilaren arabera<sup>26</sup>, badago sistema bat konpetentzia eleaniztuna duena eta hizkuntza desberdinen bidez azaltzen da. Gaur egun badakigu hizkuntzak ez direla bata bestearen gainean ikasten eta ez daudela burmuineko toki desberdinetan gordeta; hizkuntza bat besteetara salto egiteko erabiltzen da, hizkuntza horretako ezagutzak hartzeko, horrela etengabe; ondorioz, zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi, orduan eta gaitasun gehiago izango ditugu beste hizkuntza bat ikasteko.

---

<sup>25</sup> CUMMINS, J. (2000): Language, Power and Pedagogy. Clevedon: Multilingual Matters

<sup>26</sup> VILA, I. (2006): "Adquisición de lenguas extranjeras y competencia multilingüe" Jornadas pedagógicas PLCP. Mérida

### 3.3.4 LEHEN HIZKUNTZAK, ESKOLETAKO HIZKUNTZA EREDUAK ETA NORMALIZAZIOA

Argi geratzen da lehen hizkuntzaren lanketa ezinbestekoa dela haurren garapen pertsonalerako eta hizkuntza garapenerako.

Lehen hizkuntza euskara edo gaztelera ez duten haurrek ez daukate euren hizkuntzan matrikulatzeko aukerarik EAEn, harrera gizarteko hizkuntzan (edo hizkuntzetan, hizkuntza bat baino gehiago dauden herrialdeetan, kasu batzuetan) ikasi beharra daukate.

Hizkuntza bat baino gehiago dauden lurraldeetan (bat menperatua eta bestea menperatzailea) bermatu behar da bertako bi hizkuntzak ikastea eta ikasleen lehen hizkuntzak mantendu eta garatzea. Nola ordea?

Gaur egun EAEn eskaintzen diren hizkuntza ereduen artean D ereduak da bertako bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelera) ikasteko bermea ematen duen bakarra. Estatu kanpoko etorkinen matrikulazio- datuen arabera %33 A ereduak matrikulatuta dago, %30,3 B ereduak eta % 30,3 D ereduak. Orain dela urte batzuetako datuekin konparatuta D ereduak matrikulatzen diren ikasle kopurua gora doan arren, oraindik oso urrun dago datu orokorretatik (A ereduak %18,6, B ereduak % 22,7 eta D ereduak %58,7)<sup>27</sup>

Argi dago, EAEko hezkuntza- sistemak eskaintzen dituen hizkuntza ereduak nahasmena eta, kasu batzuetan, gethizazioa sortzen dutela (kasu askotan A ereduko eskolatan pilatzen dira etorkinen seme alabak) eta honen aurrean aditu batzuk hizkuntza ereduak bukatzea aldarrikatzen dute<sup>28</sup> denentzat, euskararen jabeak bermatuko duen eredu bakarra egotea egokiagoa litzatekeelakoan. Bestela, ze zentzu dauka autoktonoen artean D ereduko matrikulazio kopurua urtez urte goraka doan bitartean, etorkinen artean kontrako gertatzeak? Zergatik "aukeratzen" dute familia etorkin gehienek bertakoak baztertzeko ari diren eredu bat? Zapatak aipatutako "Etorkinak eta hizkuntza ereduak" lanean zerrendatzen ditu hizkuntza ereduak hautuan eragiten duten faktore interesgarrienak.

Barquinek argitaratutako "Immigrazioa eta euskara: gogoetarako zenbait gai"<sup>29</sup> lanean azpimarratzen du euskara ez ikasteak ondorioak dauzkala: ume batek eskola uzten badu EAEn bi hizkuntzak (euskara eta gaztelera) jakin gabe, ume horrek ez ditu besteak dituzten aukerak izango, ez lan munduan aritzeko eta ez gizartean integratzeko eta horretaz gain, Euskal Herriko kultura aberastasunaren zati handi bat galduko dute. Bere esanetan, bertako eta etorkinen seme- alaben arteko parekotasun ezak, ez du inolaz ere gizarte kohesioa bultzatuko. Gainera, ikasle horrek geroago euskara ikasi nahi izanez gero, ordaindu egin beharko du.

---

<sup>27</sup> ZAPATA, M. (2010): Euskara eta immigrazioa in MORENO, G. eta AIERDI, X. (koord.)EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria. IKUSPEGI

<sup>28</sup> ZAPATA, M. (2006):Etorkinak eta hizkuntza- ereduak. Eusko Jaurlaritza. ELKAR

<sup>29</sup> BARQUÍN, A. (2008): "Immigrazioa eta euskara: gogetarako zenbait gai" JAKIN 165. zk

Bestalde eta BHren didaktikari dagokionez, ikasleak, euskara edo gaztelera (edo frantsesa lpar EHn) ez den hizkuntza batean eskolatzen direnean, ez dute murgiltze ereduak ikasten, azpiratze ereduak baizik. Hauek dira, Vilaren esanetan<sup>30</sup> eredu baten eta bestearen arteko desberdinatsunak:

- Murgiltze ereduak borondatezkoa da azpiratzea derrigorrezkoa
- Murgiltzea ikaslearen lehen hizkuntzaren garapenez arduratzen da, azpiratzea ez
- Murgiltzean hizkuntza jabekuntza gertatzeko prozesu "naturala" imitatzen duten estrategia didaktikoak erabiltzen dira, azpiratzean ez.

Eta eredu horretan ikastearen ondorioak oso larriak izan daitezke: eskola porrota eta gizarte bazterketa.

Vilaren esanetan, azpiratze ereduak honako egoerarekin topo egiten dugu: ikaslearen lehen hizkuntza ez da kontuan hartzen, ez kurrikulumean eta ez eskolako jardunean. Eredu honekin egiten dute topo gutxitutako kultura/ etnietatik datozen haurrek:

1. Ez da betetzen borondatearen eskubidea. Immigranteen seme- alabak dauden eskoletara joaten dira eta bertan eragiteko aukera minimoa da.
2. Irakasleek ez dakite euren lehen hizkuntza, ez da lantzen eta ez diete ulertzen, murgiltze ereduak ez bezala.
3. Eskolatzen direnean, kasu batzuetan, harrera herrialdeko hizkuntzaren bat ezagutzen dute, eta irakasleek ondorioztatzen dute hizkuntza horretan hitz egiten dietenean dena ulertzen dutela eta kasu gehienetan ez da horrela izaten.

BHren jabekuntzarako ezinbesteko baldintza da Vilaren ustez, hizkuntza horrekiko jarrera positiboak izatea eta jarrera positibo horiek egoteko baldintza garrantzitsuenetako bat euren hizkuntza mehatxatuta ez ikustea da. Jarrerez gain, kontuan hartzekoak dira BHren jabekuntzan eragiten duten faktore guztiak.

Ikasle hauek askotan ez dute menderatzen ez eskolako hizkuntza eta ezta euren lehen hizkuntza ere. Lehen hizkuntzei trataera egokiagoa emateak ez ditu arazo guztiak konponduko baina horretan lagunduko du. Horretarako, lehen hizkuntzei trataera egokiagoa emateko ondorengo hauek kontuan hartzea proposatzen du Zapatak "Etorकिनak eta hizkuntza- ereduak" lanean:

- Etorकिनin ama hizkuntzen eta kulturen inguruko ikerketak egitea
- Ama hizkuntzen errekonozimendua ziurtatzeko neurriak hartzea eta gure hezkuntza sistemak eman beharreko statusa ematea.
- Etorकिनin hizkuntzak eskolatan ikasteko aukera izan dezaten urratsak ematea
- Talde handiak dauden tokietan eskolak eskaintza egitea hezkuntza sistemako beste hizkuntza batzuen statusa emateko

---

<sup>30</sup> VILA, I. (2000): "Inmigración, educación y lengua propia" in La inmigración extranjera en España. Los retos educativos. Función La Caixa

Eta hauek Etxeberriak<sup>31</sup>

- Eskola guztietan lehen hizkuntzekiko sentsibilizazioa lantzea (hizkuntza eta kulturen egunak edo asteak, kartelak...)
- Hizkuntza bateko ikasle batzuk (10) daudenean
  - jatorrizko kultura eta hizkuntza eskolatik kanpo lantzea
  - Kurrikuluma edo proiektuaren parte bat etorkinen hizkuntzetan lantzea (hizkuntza hori egiten dutenentzat edo ikasle guztientzat)
  - irakurmena eta idazmena jatorrizko hizkuntzan lantzea
  - DBHn hautazko ikasgaia izatea

Kontuan hartu behar da, halaber, ikasleen hizkuntza integrazioa helburu, integrazioa maila orokorrago batean ere landu beharko dela, integrazio soziala, kasu. Eta integrazioa arrakastatsua izan dadin ez dugu ahaztu behar ez dela etorkinen zeregina bakarrik, elkarbizitza guztion zeregina baita eta harrera gizartea ere elkarbizitza eta integrazio hori gerta dadin urratsak emateko prest egon behar da.

Ilido honetan, eta euskararen normalizazioa kontuan hartuta, garrantzitsua da euskara denontzat komuna den eremuan jartzea, integrazioarako elementu bezala baztertuta geratzen baita euskara zenbait gunetan daukagun egoera soziolinguistikoaren ondorioz. Dena den, eskolei eta normalizazioari dagokionez, azpimarratzekoa da Zapatak bere lanean dioena: askotan euskalduntzearen erantzunkizun handiena eskolaren gain utzi nahi dela, nahiz eta eskolak, berak bakarrik, sekula ez duen herria euskalduntzea lortuko. Eskolaz kanpoko esparruak eraiki behar dira, bere ustez, ikasitako hizkuntza erabili eta transmititzeko.

---

<sup>31</sup> ETXEBERRIA, F. (2006): "Enseñanza de las lenguas con alumnos inmigrantes". Euskonews

## 4. BI KASUREN AZTERKETA

---

EAEn, Gipuzkoa eta Araban, lehen hizkuntza ez euskara eta ez gaztelera ez duten bi haurren iraskasle- tutoreak eta gurasoak (amak, bi kasuetan) aukeratu dira azterketa kualitatiboa egiteko. Orain arte zerrendatutako faktore horiek guztiek errealitatean duten eraginaren pertzepzioa jasotzea da azterketa honen helburua eta horrek euskararen jabeakuntzan izan dezakeen eragina zein den ikustea.

Gogoan izan behar da jarraian aurkeztutakoak ez duela inondik inora ere ez EAera eta ezta Euskal Herrira immigratutako familien seme- alaben gehiengoaren eskoletako errealitatea islatzen. Azterketa egin den bi guneetako egoera soziolinguistikoek ere ez dute ordezkatzeko Euskal Herriko aniztasun soziolinguistikoa, ezinezkoa baita Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa bi herri edo hiritara mugatzea.

### 4.1.KASUAK

Azterketarako bi kasu aukeratu dira, parametro komun batzuk dituztenak:

- Euskal Herrian daramaten denbora: 2 urte ( bi kasuetan euren jatorrizko herrialdetik zuzenean etorri ziren)
- Adina: 8 urte
- D ereduan sartu ziren adina: 6 urte
- Ikastetxea: D ereduko ikastetxe publikoa

A kasurako aukeratutako herria Zaldibia da.

Haurren jatorria: Errumania

Zaldibiako ezagutza eta erabilera datuak hauetxek dira:

Euskararen ezagutza datuak, 2006

Zaldibia		2006	%
	___ Elebidunak	1.195	84
	___ Elebidun hartzaileak	133	9
	___ Erdaldun elebakarrak	92	6
	guztira	1.420	100

ITURRIA: EUSTAT

Euskararen erabilera Goierrri eskualdean, 2001eko kale neurketen arabera %34,2koa da (Soziolinguistika Klusterraren Euskararen Datu Basearen arabera)



B kasurako Gasteiz aukeratu da.  
Haurraren jatorria: Maroko  
Gasteizko datuak

Euskararen ezagutza datuak, 2006

Gasteiz		2006	%
	___ Elebidunak	53.349	25
	___ Elebidun hartzaileak	38.990	18
	___ Erdaldun elebakarrak	125.257	58
	guztira	217.596	100

ITURRIA: EUSTAT

Euskararen erabilera datuak, 2006ko kale erabileraren neurketaren arabera %4  
(Soziolinguistika Klusterraren Euskararen Datu Basearen arabera)

Begibistakoa da bi guneen arteko desberdinatsun soziolinguistikoa: Zaldibian euskara eta gaztelera dakiteneen ehunekoa %84 den bitartean, Gasteizen %25ekoa da eta honek, logikoki, eragina dauka euskararen erabileran ere. Nahiz eta Zaldibiako daturik ez izan, 2001ean eskualdean egindako neurketen emaitza daukagu eta pentsatu dezakegu Zaldibiakoa Goierriko erabilera orokorra baino altuxeagoa izan daitekela.

## 4.2 METODOLOGIA

Azterketarako bi kasuetan elkarrizketa irekia edo elkarrizketa sakonak erabili dira. Horretarako gidoiak diseinatu ziren aurrez: bata irakasleekin egin beharreko elkarrizketetarako eta bestea burasoekin egin beharrekorako (eranskinetan).

Elkarrizketa hauekin lortu nahi zena solaskideak euren iritzi, pertzepzio eta sentimenduak ematea zen euren seme- alaba/ ikasle baten hizkuntza jabekuntza prozesuarekiko eta prozesu horretan eragiten duten faktoreekiko.

Tutoreekin eta gurasoekin egin beharreko elkarrizketetatik gai berberen inguruko informazioa eskuratzea nahi zen eta horretarako talde bakoitzari egokitutako gidoia prestatu zen (batak eta besteak zuten ulermen maila eta kontzeptuen ezagutza- ezagutza eza kontuan hartuta). Gurasoei egin beharreko elkarrizketak gaztelera egin ziren eta tutoreei egindakoak euskaraz.

Elkarrizketak ikastetxeetan egin ziren bi kasuetan, elkarrizketatuentzat eroso izan zitekeen tokia zela pentsatuta.

## 4.3 AZTERKETA KUALITATIBOA

### Lehen hizkuntzen trataera

Familiei egindako elkarrizketetan bi kasuetan bat datoz euren lehen hizkuntzak mantentzea garrantzitsua dela esaten dutenean eta euren ustez eskoletan nahiko ez dela egiten esaten dutenean ere bai.

Garrantzitsua da lehen hizkuntzak mantentzea bi kasuetan emandako erantzunen arabera euren jatorrizko herrialdean hitz egiten den hizkuntza delako. A kasuan "primero rumano, porque en Rumanía hablamos rumano. Primero que aprenda rumano y luego los demás idiomas" eta B kasuan euren erlijio-komunitatearen hizkuntza delako "Porque es el idioma de los arabes, los musulmanes todos, el primer idioma que está el árabe, el islam también está en árabe". Bi kasuetan azpimarratzen dute, beraz, euren jatorrizko herrialdearekiko eta erlijio komunitatearekiko (B kasuan) lotura. B kasuan, esan dugun bezala, haurraren amak garrantzia ematen dio lehen hizkuntzak mantentzeko, baina paradoxikoa da haurraren amak ez duela aitortzen etxean tamazighta hitz egiten dutela (edo aitak semea hala egiten diola) elkarrizketa bukatu eta irakasleak galdetzen dion arte. A kasuan euren jatorria eta hizkuntzarekiko interes falta egozten dio eskolari: "No preguntan por ejemplo de dónde vienen, de qué zona de Rumanía, qué idiomas se hablan...porque allí también se hablan diferentes lenguas, por ejemplo en algunas zonas de Rumanía también se habla ucraniano..."

Hizkuntzak modu formalean mantentzeko dagokionean, berriz, B kasuan egunero ordu eta erdiz eramaten dute mezikara hizkuntza eta erlijioa ikasi ditzan eta A kasuan, berriz, etxean saiatzen dira haurrari irakurtzen eta idazten irakasten (arrakasta handirik gabe, dirudienez) "En casa tiene algunos libros y ha aprendido a escribir conmigo, pero le cuesta ponerse a leer o escribir después de la escuela". Bi kasuetan gurasoei garrantzitsua iruditzen zaie lehen hizkuntza horietan idazten eta irakurtzen ikastea.

Halaber, bi gurasoak bat datoz lehen hizkuntzak mantentzeko eskolak gehiago egin beharko lukeela esaten dutenean. Bi kasuetan ez dute ezer egiten eskoletan edo gurasoek behintzat ez dute horren berri. B kasuan azpimarratzekoa da lehen hizkuntzez galdetzen zaionean ikasgelan dauden ikasle guztien lehen hizkuntzak kontuan hartu beharko liritekeela esaten duela, hizkuntza guztietatik pixka bat irakastea ondo irudituko litzaiokeela azpimarratzen du (zenbat eta hizkuntza gehiago, hobe) beste herrialderen batera joan behar izanez gero ondo etorriko zaielako. A kasuan berriz, hizkuntza asko batera ikastearen kezka adierazten du haurraren amak eta askotan umeak hizkuntza desberdinak nahasten dituela esaten du, euren jatorrizko herrialdeko familiarekiko komunikazioa oztopatuz.

Irakasle- tutoreekin izandako solasaldietan gelako ikasleen lehen hizkuntzaren ezagutzari dagokionez, bi kasuetan haurren jatorrizko hizkuntzak ezagutzen dituzte, baina B kasuan zehaztasun gehiagorekin, garrantzitsua iruditzen zaio irakasleek ikasleen lehen hizkuntzak

ezagutzea, hasieran batez ere, haurrak seguruago senti daitezten, baina aurrerago komentatzen du oso zaila dela irakasleek haurren lehen hizkuntza horiek ezagutzea eta horrelako egoerek inpotentzia sortzen dutela ere badio, komunikatu ezinaren ondorioz; Aren kasuan, ostera, ikaslearen abizena ahoskatzeko gai ez dela aitortzen du irakasleak.

Ikasle hauek euren lehen hizkuntzak mantentzearen inguruan iritzi desberdinak ematen dituzte bi kasuetan: Aren kasuan, irakaslearen ustez, amarekiko eta bere herrialdearekiko lotura dira hizkuntza mantentzeko arrazoi nagusia, eta behin eta berriz azpimarratzen du euskarari eman behar zaiola bultzada txikitatik. B kasuan, aldiz, beste hizkuntza eta kultura bat jasotzeko, norberarena mantentzeak duen garrantzia azpimarratzen du: "norberaren hizkuntza garrantzitsua da eta nire ustez nahiz eta beste herrialde batetara joan eta beste hizkuntza bat ikasi bertan integratu ahal izateko, norberarena mantendu behar da. Bere nortasuna hor ere badago, sustraiak hangoak ditu eta ondo jarrita baditu, agian beste hizkuntzak ikasteko garaian horrek ere lagunduko dio". Hizkuntza berri bat ikasteko lehen hizkuntzari garrantzia aitortzen dio B kasuko irakasleak eta integratziorako elementu garrantzitsua dela ere aipatzen du. Harrera gizarteak ere horretan zeregina baduela adierazten du, besteen hizkuntza eta kulturak errekonozitzen: "garrantzitsua da beraien hizkuntza eta kultura errekonozitzea gero besteenean integratu ahal izateko".

Familiek euren hizkuntzak mantentzearen inguruan A eta B kasuetako irakasleak bat datoz hizkuntza horiek mantendu egin behar direla baieztatzean (bestelako hizkuntzetan ezingo dutelako elkarren artean komunikatu ohitura kontuengatik, A kasuko irakaslearen aburuz), baina B kasuan zehazten du besteekin erlazionatzeko bertako hizkuntza ere erabili behar dela, bestela euren artean bakarrik egiten dituztelako harremanak eta horrela talde itxiak sortzeko joera areagotzen delako, harremanak zailduz.

Hizkuntza hauek ikasgeletan eduki beharreko tokiari buruz galdetuta bi muturretara hurbiltzen diren erantzunak ematen dituzte irakasleek. A kasuan, gelako ikasleen lehen hizkuntzak gutxi direnez, zalantza azaltzen du horiek eduki beharko luketen tokiaz eta B kasuan, berriz, zalantza agertzen du, baina hizkuntza asko direla argudiatuta (4 edo 5 izan daitezkeela). Dena dela, bi irakasleek diote hizkuntza hauek "tokitxo bat" mereziko luketela gelan, hurbiltasuna lortzeko eta ikasleen segurtasun emozionala areagotzeko, B kasuko solaskidearen ustez. "Tokitxo" hori zein den, ordea, ez dute gehiegi zehazten eta biek adierazten dute hizkuntza horien lanketa formala eskola orduetatik kanpo egin beharko litzatekela (biek adierazten dute eskoletan ez dagoela ikasleen lehen hizkuntzan dagoen libururik) "Etxean erabiltzen bada, erabilpena nahiko bermatuta dagoela iruditzen zait eta eskolak bertako hizkuntzak erakusten eta haurrek beraiek barneratzen nahiko lan izaten ditu" dio B kasuko tutoreak.

Ez A kasuan eta ez B kasuan eskolak ez du lan-ildorik zehaztuta ikasleen lehen hizkuntzen lanketari dagokionean. Dena dela, B kasuan aste kulturala egiten da eta euren lan- ildo garrantzitsuenak ikasleen autonomia eta identitatea direla dio (lehen hizkuntzarekin estuki lotuta dagoen kontzeptua bigarren hau).

## Faktore afektibo pertsonalak

Bi kasuak (A eta B kasuetan) aitortzen diete faktore afektiboek garrantzia bai hizkuntzak ikasteko prozesuan eta baita umeak eskolarekin integratzeko prozesuan ere. Horrela, A kasuan zein B kasuan umeak izaera irekia izateak eta lotsarik ez izatea hizkuntza ikasteko prozesuan lagungarria dela aitortzen du amak, hasiera zaila izan zela aitortzen duen arren. Bi kasuetan hasierako ezin ulertuak sortu zuela prozesuko urduritasun punturik nabarmenena esaten dute. Eskolako hizkuntzak (ez euskara eta ezta gaztelania ere) ez ezagutzea izan zen urduritasun horren eragile nagusia euren amek adierazten dutenez. B kasuan nabarmen zuten du laguntza gelan (HIPIarekin) erosoago sentitzen dela haurra, gela arruntean galduago dagoela.

Dena den, ikaskideekin harreman ona izateak bi kasuetan mesede egiten dio jabeak prozesuari, euren amen ustetan.

Gelako giroari dagokionez, A kasuan egokia iruditzen zaiola dio, B kasuan, bestalde, gela arruntean bere semea nahiko galduta sentitzen dela aitortzen du, badirudi HIPIaren gelan gehiago zaintzen dela haurra eroso sentitzea.

A kasuan azpimarratzen du ikasteko gogoak, kuriositateak, autoestimak eta etorkizunerako espektatiba onak izatean ikas prozesuan lagundu egiten duela.

Hizkuntza ikasteko motibazioari buruz galdetutakoan, bi kasuetan haurrek euskara ikasi nahi dutela adierazten dute ikaskideekin eta irakasleekin komunikatzeko. Euskara ikasteko beharri buruz galdetuta, berriz, A kasuan bertako jendeak euren hizkuntza (euskara) maite dutela eta ikasteko prest dardela ikustea da motibatzen duen indarra. Hala, integratzeko tresna garrantzitsutzat hartzen du euskara A kasuan: "porque por ejemplo en este pueblo la gente habla en euskera... así que si aprendes y puedes hablar euskera es mejor para integrarte", hala ere kasu honetan, gaztelari ere aitortzen dio garrantzia, euskara euskal Herrian "bakarrik" hitz egiten delako eta gaztelara berriz "Espainia osoan". B kasuan, berriz, gaztelara ikasteak pisu nabarmen handiagoa du; Gasteizen euskararen presentzia txikia denez, ez diote balio handirik ikusten euskara ikasteari eta arabiarrentzat gaztelara ikastea mesedegarriagoa dela esaten du solaskideak eta berak, oraingoan, ikasteko asmorik ez duela aitortzen du, nahiz eta ondoren, semeak lanerako eta behar izango duela aitortzen duen, lan duin bat izateko. Eguneroko harremanetarako gaztelara dela beharrezkoa adierazten du.

Irakasleek diotenez garrantzia handia dute faktore afektiboek hizkuntza berri bat ikasteko prozesuan. B kasuko tutoreak dioenez, antsietateak, beldurrak, inhibizioak...ez dute laguntzen ikasteko prozesuetan (ez hizkuntzarenean bakarrik, denetan). A kasuko irakaslearen ustez hasierako egoeretan sortzen da antsietatea batik bat, bere ustez, hori ekiditeko lanu behar da euskara sakontasunez, ulermen eza sor dezaketean egoerak saihesteko eta euskaraz komunikatzeko bidea egiteko. Bere ustez batez ere irakurmena eta idazmena lantzen direnean sortzen dira antsietate egoerak: "nahi dut, baina ezin dut besteek egiten duten bezain ondo egin". Irakasle honen ustez, hasieran, elkar komunikatzeko hizkuntzarik ez dagoenean beti sortzen da positiboa ez den sententzia bat, berak nola definitu ez dakiena "antsietatea, estresa, ezina...", hala ere, zehazten du desberdina dela

ikasle bat eskolan txikitatik hasia (nahiz eta euskara eta gaztelera ez jakin) edo "adin hauetan" hasia (6-8 urterekin, alegia) "horrelako egoeretan, Aren egoera kasu, kontuan hartu behar da gela guztia eta lanketak egin behar dira baloreetan eta errespetuan oinarrituta". B kasuko tutoreak dionez, berriz, autoestima eta autoirudi ona izateak ausardiarekin du zerikusia: autoestima ona izanez gero, haurra gauza berriak probatzera ausartuko da eta ausartzen bada ikasteko aukerak handitu egingo dira. A kasuko irakasleak ere lotu egiten ditu, nolabait, haurren izaera eta autoestima "hiztunagoa eta hurbilagoa bada, agian autoestima handiagoa dauka..." Ingurukoek ikasle honi buruz eduki dezaketen irudiak ere garrantzia badu bien ustez, B kasuko irakaslearen esanetan, ikaskideek, esate baterako, ikaslearen irudi ona ez badute, honek blokeo- egoerak, beldurra, lotsa eta inseguritatea eragin diezazkioke.

Bai A kasuko eta baita B kasuko haurren kasuan, ausardiak eta izaera "irekiak" lagundu egiten diete jabeakuntza prozesuan eta honetan bat datoz guraso eta irakasleak ere. Biek dute konfiantza bere buruarekin eta biek gustatzen zaie gauza berriak probatzea, planteatutako erronkak bere egiten dituztela esan daiteke, beraz.

Gelako giroari dagokionez biek adierazten dute garrantzitsua dela haurrak ikasgelan seguru sentitzea aurrera egiteko; horrela, B kasuko irakasleak horrela jokatzen du "Goxotasunez hitz egin, arazoan aurrean konponbidea ematen saiatu, behar duen babesa eman, maitasuna eman, bere autoestima indartu, ondo egiten dituen gauzak baloratu eta abar luze bat" eta gelan jolas kooperatiboak eta elkarri laguntzeko diseinatutako jarduerak antolatzen ditu, "Haurrak adin hauetan egozentristak dira eta konpetitiboak, hori bideratzen saiatzen gara".

Euskara ikasteko ikasleek izan dezaketen motibazioari buruz galdetuta, bi kasuetan erantzun desberdinak ematen dituzte irakasleek. A kasuan, Zaldibian, "inguruan hitz egiten den hizkuntza delako" ikasi behar duela iruditzen zaio, euskaraz ikasi behar du, bere ustez ikasketa prozesu osoa euskaraz egingo duelako eta horretarako maila txukuna behar duelako, kalerako eta eguneroko harremanetarako ere ikasi behar du. B kasuan, Gasteizen, aldiz, oso bestelakoa da euskara ikasteko motibazioa irakaslearen ustez. Bere ustez, euskara ikasteko motibazioa eskolako hizkuntza izatea da, eskolak erabiltzen duena, alegia. Euskara zertarako behar duten galdetuta, berriz, bi hizkuntza ofizialetako bat dela argudiatzen du eta hemen bizi direnez jakin behar dutela. Gaztelera ikasteko arazoien artean, berriz, Gasteizko kasuan eguneroko bizitzan behar duten hizkuntza hau dela dion bitartean, Zaldibian ez dio irakasleak aparteko baliorik ikusten, "zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobe" dio. Biek hala biek diote umeei ez dutela euskara ikasteko motibazioa lantzen gela, "nahikoa baduelako" B kasuan eta " Zaldibiako giroa ikusita ez delako behar"

## Erlaziozko faktoreak

Elkarrizketetan faktore afektiboak eta lehen hizkuntze trataeraz gain, erlaziozko faktoreei buruz ere galdetu zitzaizkien elkarrizketak: eskola eta familiaren arteko harremana, identitatea, jarrerak, kulturalitatearen kudeaketa...jarraian daude laburbilduta bi kasuetako guraso eta irakasleek komentatutakoak.

Identitateari buruz galdetuta, A eta B kasuko amek euren jatorrizko herrialdeko identitatea aitortzen dute, bai eurentzat eta baita euren semeentzat ere. A kasuan Errumaniakoa dela

baina Zaldibian bizi dela esaten omen du haurrak eta B kasuan Marokokoa dela (etorkizunean hara itzultzeko asmoa ere adierazten du).

Euskara eta euskal hiztunekiko jarrerari dagokienez, ez A kasuan eta ez B kasuan gurasoak ez dira saiatu hizkuntza ikasten; hala ere, A kasuan, zaila iruditzen zaion arren, ikasteko asmoa daukela dio (eskolako bileretan parte hartzeko, esaterako) euskarak "gauza bat" gehiago emango liokela eta jendeak hori oso positibotzat baloratuko lukela esanez. B kasuan, aldiz, ez du inongo beharrik ikusten euskara ikasteko. Euskal hiztunekiko harremanak onak direla azpimarratzen dute bi kasuetan. Beraiei buruz besteek ze iritzi diten galdetutakoan A kasuan inongo arazorik ez duela izan eta beste gurasoak euren jatorriarekiko interesa agertu dutela dio, B kasuan, berriz, denetik dagoela esaten du ikaslearen amak, nahi eta ondoren gehitu inorekin ez duela arazorik izan.

Kulturen trataerari buruz, biak bat datoz eskoletan euren kulturei tokirik ez zaiela egiten eta egin beharko litzaiokela aldarrikatzen dutenean. B kasuan, dena dela, eskoletan egiten diren festetan eta euren kulturak, neurri batean, baloratzen direla dio. Ez da hori gertatzen A kasuan, eskolak ez baitu ezer egiten arlo horretan eta bere ustez, zerbait egin beharko litzateke (kultura bakoitzaren berri emateko festak, adibidez). Berien aldetik, bi kasuetan, bertako kulturara gerturatzen direla esaten dute eta bertako kultur- jardueretan parte hartzen dutela. B kasuan, nabarmentzekoa da bertako kultura esaten duenean, behin eta berriz diola "Espainiako kultura" eta ez "Euskal Herrikoa". Bi kasuetan mantentzen dituzte euren jatorrizko kulturak etxean (B kasuan mezkitan ere bai).

Eskola eta familiaren arteko harremanari buruz galdetutakoan, A kasuan berak nahi baino harreman gutxiago dagoela azpimarratzen du ikaslearen amak, euskaraz hitz egiten duten gurasoekin ez bezala (euskaraz hitz egiten duten gurasoen eta eskolaren arteko harremana estuagoa dela aitortzen du elkarrizketatutako amak). Horretarako oztopo ikusten du hizkuntza; bere esanetan eskolan egiten diren bilera guztiak euskara hutsean egiten baitira eta beraiek parte hartzeko mugak dituzte.

Irakasleei galdetuta berriz, ondorengo erantzunak jaso dira:

Haurren identitateari dagokionez, B kasuan irakaslea eta ama bat datoz umearen identitateari buruz pentsatzen duten horretan: biek uste dute haurra marokarra sentitzen dela. Ez da gauza bera gertatzen A kasuan, arestian bere amak Zaldibian bizi den errumaniar bezala identifikatu baldin badu ere irakaslearen arabera haurra Zaldibiakoa dela dio. Bere esanetan ez du jatorrizko herrialdea aipatu ere egiten gelan eta beste haurren batek bere familiaren jatorriari buruz zerbait esaten badu irakasleak haurra hemen jaiotakoa dela esan ohi du (nahi eta hala ez izan).

Euskara eta euskal hiztunekiko jarrerari dagokienez, ez da aipamen berezirik egiten A kasuan gurasoen euskararekiko jarrerari buruz galdetutakoan, telebista gazteleraz jartzen dietela argudiatzen du eta B kasuan, berriz, irakasleak horri buruz gurasoekin ez duela hitz egin adierazten du. Umeen jarrerari dagokionez, berriz, A kasuan jarrera positiboa daukela eta jarrera hori bultzatzen dela dio irakasleak eta B kasuan ez duela ez jarrera onik ez txarrik adierazten.

Kulturaniztasunaren kudeaketaren inguruan A kasuan ekintza puntualen bat baino ez dela egin adierazten du irakasleak eta beste kulturak baloratzean hutsunea izan dezaketela aitortzen du, B kasuan, aldiz, ikastetxean aste kulturala ospatzen dutela dio ikasleen kulturak erakutsi eta baloratzeko helburuarekin eta horretaz gain, gelan, eguneroko jardunean, kulturekin lotutako elkarrizketak ateratzen direnean, horiek komentatu eta lantzeko aprobetxatzen da. Ikasleak bertako kulturako parte sentitzeko zer egiten den galdetutakoan, A kasuan bertako kulturako parte sentitzen dela adierazten du irakasleak (nahiz eta euren jatorrizko kulturako elementuak mantendu eta umea horren kontziente izan). B kasuan berriz, bertako kulturara gerturatzeko ekintzak egiten dira eskolan (inauteriak, olentzero, san prudentzio, jolasak, janaria...). Eskolak kulturaniztasuna kudeatzeko dituen helburu edo lanildoen inguruan A kasuan zerbait jarrita baduten arren, ez dutela ezer handirik egiten aipatzen du irakasleak eta B kasuan egiten dena, gehien bat, aste kulturalaren inguruan egiten dela. Bukatzeko gai honekin lotuta bi irakasleek aipatzen dute errespetua uneoro lantzeak daukan garrantzia A kasuan "Errespetua jo eta ke lantzen dugu; desberdinatsunak eta errespetua balore bezala egunerokoan" B kasuan berriz "Egunero lantzen den zerbait da beraien arteko errespetua. Lehenik bakoitzak berea onartu behar du bestena errespetatzeko."

Bi kasuetan galdetu zaie inguru soziolinguistikoak eraginik ba ote duen euskararen jabeakuntza prozesuan eta bai irakasleak eta bai gurasoak bat datoz: eragin erabakiorra du. Horrela A kasuan ingurune soziolinguistiko euskalduna euskara ikastea bultzatzen duen faktore garrantzitsua den bitartean, B kasuan eskolako hizkuntza izateak ahuldu egiten du indar hori.

## 5. ONDORIOAK

---

Egindako elkarrizketetan jasotako informaziotik eta BHren jabeak eragiten duten faktore sozioafektiboak eta lehen hizkuntzaren trataera kontuan hartuta, ondorio batzuk ateratzen saiatuko gara segidan.

Lehen hizkuntzen trataerari dagokionez aztertutako kasuetan gutxi da lehen hizkuntza hauek lantzeko eskolan egiten dena eta horixe da gurasoen pertzepzioa ere: gehiago egin beharko litzatekeela. Hauek lirateke, irakasleen ustez, eskolan lehen hizkuntzen lanketak egiteko leudeken oztopo nagusiak:

- Aniztasuna: toki batzuetan handia da eta zaila da hizkuntza horiek guztiak kudeatzea eta beste toki batzuetan aniztasun gutxi dagoelako, irakasleen ustez, ez du merezi lanketarik egiterik. (Nahiz eta aniztasuna gizartean badagoen eta pertsona guztiak aniztasun horretan bizitzeko prestatu behar diren)
- Irakasleen ezintasuna hizkuntza aniztasunari erantzuteko (ez dakizkitez ikasleen hizkuntzak)
- Kurrikulumean tokirik ez dute ikasleen lehen hizkuntzek
- Euskara eta gaztelera (hegoaldeko bi hizkuntza ofizialak) irakasten nahikoa lan
- Baliabiderik ez daukate lanketarik egiteko
- Kasu batzuetan irakasleen borondate eza edo interes falta

Administratibotik baliabideak jarri beharko lirateke oztopo hauek arintzeko eta horretarako Zapata eta Etxeberriak egindako proposamenak baliagarriak izan daitezke (aurreko atal batean jasota). Hauek lirateke lehen hizkuntza lantzeko arrazoi nagusiak:

- Lehen hizkuntzaren garapena ezinbestekoa da beste hizkuntzak ikasteko
- Helburu- hizkuntza ikasteko hizkuntza horrekiko jarrera positiboak izatea oso garrantzitsua da eta jarrera positibo horrek berekin dakar norberaren hizkuntzarekiko errespetua, errekonozimendua eta lehen hizkuntza horren garapena mehatxatuta ez ikustea.
- Haurrak seguruago sentitzea
- Lehen hizkuntzak identitatea (edo identitate bat) mantentzen laguntzen du. Norberaren identitatea mantentzea ezinbestekoa da beste hizkuntzak eta kulturak ezagutu eta bere egin ahal izateko.
- Enpatia sortzeko, ezinbestekoa da errekonozimendua eta haurren lehen hizkuntzei prestigioa ematea (bere identitate eta hizkuntza ez baztertzeko, lotsari kez izateko)



Bestalde, B kasuko elkarrizketan etxean haurrari tamazigta hitz egiten diotela ezkutatu da hasieran. Tamalez, gizartean sarritan errepikatzen den fenomenoaren ematen du gutxitutako hizkuntzei gehiengoaren hizkuntzei ematen zaien garrantziarik ez ematea eta ondorioz, baztertua. Ikaslearen garapena eta familiako kideen identitatea eta autoestima kontuan hartu eta zaindu beharrekoa da horrelako fenomenoak gerta ez daitezen eta hau ezinbestean lotuta dago kulturazintasunaren tratamendurik.

Non landu, ordea, lehen hizkuntza hauek? Eskola orduetatik kanpo lehen hizkuntzak lantzeko aukera zilegia da eta horretara jotzen dute familia askok ( elkarrizketatutako B kasuan, adibidez) aukera dutenean (A kasuan, esaterako, ez dauka aukera hori). Honek, ordea, gethoak edo talde itxiak sortzeko arriskua areagotu dezake (eskolatik kanpo euren jatorri bera duten pertsonekin erlazionatzen direlako, gehien bat). Horregatik, eskolan bertan ere hizkuntza horiek lantzeko, errekonozimendu hutsetik haratago, espazioak sortzea oso mesedegarria izango litzateke, bai lehen hizkuntza hori dutenentzat eta baita bere ikaskideentzat ere eta horretarako bidea egin beharko litzateke eta aukerak aztertu.

Faktore afektibo pertsonalei dagokienean, aztertutako kasuetan denek diote batez ere hasieran (ikaslea eskolan hasten denean eta lehen hizkuntza ez datorrenean bat eskolako hizkuntzarekin/ hizkuntzekin) sortzen direla positiboak ez diren "sentsazioak". Elkarren artean ulertzea kostatzen denean, badirudi antsietateak eta estresak gora egiten dutela.

Aipatzekoa da A kasuan irakasleak antsietate maila jaisteko ematen duen ideia: euskara gehiago "sartu" behar zaiola haurrari, besteekiko komunikazioa errazagoa izan dadin eta antsietate maila jaitsi dadin. Horrelako ideiekin kontuz ibili beharrean gaude, kontrako efektua eragin baitezake: hizkuntza bat (euskara, kasu honetan) lehenbailehen "sartu" nahiak, ikaslearen egoera emozionala kontuan hartu gabe eta bera seguru sentitzen den hizkuntza hori baztertua egiten bada ondorio kaltegarriak izan ditzake haurraren gain.

Batez ere hasieran, baina baita hizkuntza jabeak eragiten duten prozesu osoan zehar ere, gertu- gertutik zaindu behar dira haurraren antsietatea eta autoestima. Arlo hauek zaintzeko badira gakoak diren zenbait elementu:

- Metodologia: BHren jabeak lantzeko metodologiak zerikusi handia du antsietate mailarekin. Gaur egun lantzen diren funtzio komunikatibo bidezko metodologiak hasiera- hasieratik bultzatzen dute hizkuntza erabiltzera eta honek antsietate maila igo dezakeela kontuan hartuta, konfidantza eta giro lasaia izatea bereziki zaindu beharrekokoak dira.
- Lehen hizkuntzaren lanketa gakoak da ikaslea eroso sentitu dadin. Hizkuntza horrekiko hurbiltasunak antsietatea jaitsi eta autoestima igoaraziko dio eta honek BHren jabeak eragiten duten prozesuan arrakasta izatera eramango gaitu.
- Ikaslearekin konfiantza giroa sortzea ezinbestekoa izango da berau hizkuntzarekin probak egitera "arriskatzeko". Zenbat eta proba gehiago egin, arrakastarako aukera

gehiago izango ditu eta honek autoestiman eragin positiboa izango du. Bide horretatik aurrera egitea errazagoa izango da.

- Ikasleen arteko giroa zaintzea: gune kooperatiboak sortu eta elkarri lagunduz elkarrenganako konfiantza giroa sustatzea.

Euskara ikasteko motibazioei dagokienez berriz, elkarrizketetan, inguru soziolinguistikoarekin lotuta eta espero zitekeen moduan, muturreko bi egoerekin egiten dugu topo. Zaldibian euskara ikasteko motibazio nagusia herrian gehien erabiltzen den hizkuntza izatea da (motibazio integratzailea). Euskara herrian integratzeko tresnatzat ikusten dute; Gasteizen, aldiz, euskara eskola eremuarekin lotzen da bakarrik eta gaztelarak dauka eguneroko bizimoduan toki gehien nabarmen, ondorioz gaztelera ikasteko motibazioa handiagoa da. Gasteizen euskara ikasteko egon daitekeen motibazio bakarra instrumentala da (etorkizunean lan duin bat lortzea, adibidez). Horregatik landu beharko lirakeke, espreski, motibazioa bultzatzen duten programak.

Egoera honetan (Gasteizkoan, batik bat) zaila da euskara ikasteko motibazioa areagotzea gizartean daukan presentzia eskasa delako. Gure B kasuko haurra D ereduan matrikulatuta dagoen arren, ohikoena ez dela esan daiteke, familia etorkin gehienek, inguru ez euskaldunetan euren umeak A eta B ereduan matrikulatzen baitituzte. Matrikulazioa egiteko ardurak gurasoek dutenez, interesgarria litzateke gurasoek haurra D ereduan matrikulatzeko arrazoiak ezagutzea, baina kasu hauetan ez dugu horren berri. Gurasoei adierazi behar zaie garrantzitsua dela euren seme- alabak D ereduan matrikulatzea bertako ikasleek dituzten aukerak izateko ( lanpostu duin bat lortzea, esate baterako).

Inguru ez euskaldunetan, beraz, gurasoak izan daitezke euskarara gerturatzeko motibazioa lantzeko subjektu, eurek euskara ez ikasi arren, hauengan egongo baita euren seme- alaben etorkizuna baldintzatuko duen erabakia hartzea. Inguru euskaldunetan errazagoa da haurrak D ereduan matrikulatzea bi arrazoiengatik: euskarak gizartean presentzia handia duelako eta, herri askotan, beste aukerarik ez dagoelako (eskaintzen den eredu bakarra euskarazkoa delako).

Faktore sozialen artean, identitatea da hizkuntzarekin estuki lotuta dagoen kontzeptu bat. A kasuko egoeratik abiatuko gara ondorioak ateratzeko. A kasuan elkarrizketatutako amaren arabera bere semea errumaniarra da (Zaldibian bizi den errumaniarra), han jaioa. Irakasleak dionez, berriz, ikasle honek bere burua zaldibitartzat du eta ez du bere jatorrizko herrialdearen aipamenik egiten; gainera, inoiz, baten batek horren inguruan galdetzen badin badu, irakasleak bertan jaio dela esaten omen die nahiz eta horrela ez izan (intentziorik onenarekin, seguru). Egoera honek haurarentzat arazoak sor ditzake: etxean errumaniarra dela diote eta eskolan zaldibitarra...azkenean ez bateko eta ez besteko izateko sentsazioa eduki dezake (anomia identitarioa). Horregatik adituek eskoletan identitate anitza bultzatu behar dela diote eta identitate anitzak sustatzeko garrantzitsua da (haur) bakoitzaren identitatea errekonozitu eta errespetatzea, horren gainean beste identitate bat (edo batzuk) eraikitzen joateko.

Gainera, identitatea erabat lotuta dago integrazio kontzeptuarekin; integratzeko oinarritzkoa da norbanako bakoitzaren identitatea mantentzea alde batetik eta gizartearekiko erlazio

positiboak bultzatzea bestetik. Elkarbizitzarako bidean, beraz, zaindu beharreko beste atal bat dugu hau, zentzu honetan, harrera gizarteko kideek egin beharreko lana ahaztu gabe .

Kulturaniztasuna errealitate bat da eta kudeatu egin behar da, bai eskoletan eta baita gizartean ere. A eta B kasuetan ez da gauza handirik egiten aniztasun kulturala kudeatzeko (B kasuan aste kulturala eskolan), eta horretan hutsunea eduki dezaketela onartzen du A kasuko irakasleak. Eskoletan derrigor landu behar da ikasleen kulturen errekonozimendua eta aniztasuna, eta ez soilik ekintza puntualetan, eguneroko jardunean baizik, ikasleen arteko enpatia lantzeko bide aproposa litzateke, zalantzarik gabe. Identitatea eta hizkuntzarekin gertatzen den bezala ezinbestekoa da norberarena errekonozitzea, ondoren harrera gizarteko kulturara gerturatzea nahi badugu eta integrazioa errealitate bihurtzea nahi badugu.

Bukatzeko eta eskolaren eta familiaren arteko harremanari dagokionez, ideia bat azpimarratu nahiko nuke: eskola familiaren integrazioarako tresna ezinhobea izan daitekeela harremanak ondo bideratzen badira, familiek eskolan parte hartzea lortzen bada. Horretarako bitartekoak jarri behar dira, ordea, eta jatorri ezberdinetako familien parte hartzea ebaluazio bileretara eta urtean behin egiten den bilerara joatea baino zerbait gehiago dela ulertu behar da. Harreman honek mesede egingo lioke eskola komunitatea osatzen duten hiru aldeei: ikasleari ( gurasoak eskolako jardunean inplikatzeko ikasteko motibazioa areagotuko litzateke), irakasleei (harremanek dakarten aberastasuna eta errealitatea ikusteko beste modu bat ezagutzeko aukera) eta gurasoei (gizartean integratzeko tresna).

## 6. BIBLIOGRAFIA

---

- ARAMAIO, Itziar (2003): "Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan" HIK HASI 77.alea
- ARAMAIO, Itziar (2003): "EVLANG europar programa" HIK HASI 79.alea
- ARAMAIO, I. eta ORTEGA, I. (2006): "JA- LING etorkinak eta gu batzen" HIK HASI 112.alea
- ARNOLD, Jane (1999): Affect in language learning. Cambridge University Press
- BARQUÍN, A. (2008): "Immigrazioa eta euskara: gogoetarako zenbait gai" JAKIN 165. zk
- BARQUÍN, Amelia (2009): "De donde son los hijos de los inmigrantes: La construcción de la identidad y la escuela. Educar, 44 :81-96
- CARBONELL, F. (1995): Inmigración: Diversidad cultural, desigualdad social y educación. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid
- CUMMINS, J. (2000): Language, Power and Pedagogy. Clevedon: Multilingual Matters
- ETXAGUE, X.; CENOZ, J eta URÍA, M.(2010): "Inmigración, lenguas oficiales y educación en el País Vasco" in CENOZ, J eta ETXAGUE, X (koord): inmigración y aprendizaje de lenguas en comunidades con dos lenguas oficiales. Segundas lenguas e inmigración, 2010 ekaina
- ETXEBERRIA, F. (2006): "Enseñanza de las lenguas con alumnos inmigrantes". Euskonews
- GARABIDE Euskararen berreskuratzea, hizkuntzak berreskuratzeko gako batzuk
- IKUSPEGI (2008): "Hizkuntzak eta immigrazioa", Immigrazioari begirada, 22. zk
- IKUSPEGI (2011): "Etorkinak euskal autonomia erkidegoko hezkuntza-sisteman", Immigrazioaren begirada, 41.zk
- IMMIGRAZIOAREN, HERRITARTASUN ETA KULTURA ARTEKO BIZIKIDETASUNAREN PLANA 2011-2013, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.
- JUNYENT, Carme elkarrizketa (2005): ARGIA aldizkaria 1980. alea
- LAPRESTA, C.; HUGUET, A. eta JANÉS, J (2010): "Análisis discursivo de las actitudes lingüísticas de los escolares de origen inmigrante en Cataluña". Revista de Educación, 353. 2010 iraila- abendua

- RUIZ BIKANDI, U. (2009): Bigarren hizkuntzaren didaktika haur eta lehen hezkuntzan. UPV-EHU
- SANCHEZ CARRIÓN, J.M., «Txepetx»(1987): Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas. ELKAR, Donostia
- SANZ, P.; RUIZ BIKANDI, U. et al. (1984): "Análisis de una enseñanza bilingüe" in SIGUÁN, M (koord): Adquisición precoz de una segunda lengua, ICE, Bartzelona
- SCHUMANN, John (1978): The pidginization process: a model for second language acquisition, Newbury House.
- SCHUMANN, John (1994): Where is Cognition? Emotion and Cognition in Second Language Acquisition Studies in Second Language Acquisition, 16
- RUIZ BIKANDI, U; MIRET, I "Hacia una cultura multilingüe de la educación", Textos de didáctica y de literatura, 23. zk
- VILA, I. (2006): "Adquisición de lenguas extranjeras y competencia multilingüe" Jornadas pedagógicas PLCP. Mérida
- VILA, I. (2000): "Inmigración, educación y lengua propia" in La inmigración extranjera en España. Los retos educativos. Fundación La Caixa
- ZAPATA, M. (2006): "Etorkinak eta hizkuntza- ereduak". Eusko Jaurlaritz. ELKAR

## 7. ERANSKINAK

---

### GIDOIA: FAMILIA

#### SARRERA:

Azterketaren helburuak azaldu

1. Aren egoera eskolan, kokapena (noiz etorri zen, euskararen ikaskuntza prozesua oro har, euskara maila, beste hizkuntzak, ikaskideekiko harremana, irakasleekiko harremana, familia...)

#### LEHEN HIZKUNTZAK

2. Zein da zure (gurasoak, familia) lehen hizkuntza/k?
3. Etxean zein hizkuntza hitz egiten duzue? Umearekin?

#### LEHEN HIZKUNTZAK MANTENTZEA

4. Garrantzitsua iruditzen al zaizu zure semeak/ alabak lehen hizkuntza mantentzea? Zergatik?
5. Modu informalean mantentzen duzue?
6. Eta modu formalean (irakurri, idatzi...)? Non, nola?
7. Eskolak edo irakasleek zerbait egin behar dutela iruditzen zaizu lehen hizkuntza hauek mantentzeko? Zergatik? Zer egin dezakete?

#### LEHEN HIZKUNTZEN PRESENTZIA ESKOLAN

8. Ze toki eduki beharko lukete hizkuntza hauek ikasgelan/ eskolan?
9. Eskolan nahiko leku badutela iruditzen zaizu ikasleen lehen hizkuntzek?
10. Badakizu arlo honetan lanketarik edo lan ildorik ba al dagoen eskolan?
11. Zer uste duzu pentsatzen dutela ingurukoek (eskola, beste gurasoak, inguruko jendeak...) zuen hizkuntzaz?

#### EUSKARAREN JABEKUNTZAN ERAGITEN DUTEN FAKTORE AFEKTIBOAK

#### PERTSONALAK

12. Hizkuntza bat ikasteko prozesuan faktore hauek garrantzia dute?
13. Antsietatea, beldurra, frustrazioa, estresa, inhibizioa, barrenkoia/ kaporakoia izatea autoestima, autoirudia?
14. Euskara ikasteko prozesuan nola ikusten duzu zure seme- alaba ikasgelan?
15. Zure ustez eskolako giroa egokia da zure seme/ alabak hizkuntza berri bat/ batzuk ikasi dezan/ ditzan?
16. Eskolan eta etxean bere lorpenak errekonozitzen direla uste duzu?
17. Zure seme/ alabak euskara ikasi nahi duela iruditzen al zaizu? Zergatik?
18. Zure seme/ alabak euskara ikasi behar duela iruditzen al zaizu? Zergatik?

19. Eta gaztelera?
20. Ze toki du bakoitzak zuen bizitzan?
21. Hizkuntza integratzeko garrantzitsua dela uste duzu?
22. Zerbait egiten al duzue euskara ikasteko motibazioa handitzeko?
23. Ze espektatiba dituzue familian zuen seme/ alabaren ikasketa prozesuarekiko oro har eta euskararen ikasketa prozesuarekiko?
24. Familiak ze harreman du eskolarekin? Harreman gehiago egon beharko litzatekeela iruditzen zaizu?

SOZIALAK edo ERLAZIOZKOAK: Kulturantzatasuna, identitatea, enpatia, jarrerak, kanpo motibazioa...

25. Inguruan hitz egiten diren hizkuntzek ze eragin dute euskara ikasteko prozesuan?
26. Euskararekiko jarrerak (famiiliarenak eta haurarenak): hemen bi hizkuntza ofizial daude...ze iruditzen zaizu euskara? Ikasteko asmorik baduzu? Ikasteko erraza iruditzen zaizu?
27. Ezagutzen dituzu normalean euskaraz aritzen diren pertsonak? Harreman ona daukazu haiekin?
28. Identitate aldetik, nongoak sentitzen zarete? Eta seme- alaba? Nongoa dela sentitzea nahiko zenukete? Zergatik?
29. Eskolan ikasleen kulturei nahiko garrantzia ematen zaiela iruditzen zaizu? Beste zerbait egin beharko litzateke?
30. Zuen kulturara gerturatzeko zerbait egiten al da eskolan? Zer ? Nola?
31. Zuen ustez, nahikoa baloratzen al dira ikasleen kulturak eskolan?
32. Zuek bertako kulturara hurbiltzeko zerbait egiten al duzue?
33. Zuen jatorrizko herrialdeko kultura mantentzen al duzue? Zer? Nola?
34. Gizartearekin integratuta sentitzen zarete? Eta seme- alaba?

## GIDOIA: irakaslea

### SARRERA

Azterketaren helburuak azaldu

1. Aen egoera eskolan, kokapena (noiz etorri zen, euskararen ikaskuntza prozesua oro har, euskara maila, beste hizkuntzak, ikaskideekiko harremana, irakasleekiko harremana, familia...)

### LEHEN HIZKUNTZAK

#### HIZKUNTZEN EZAGUTZA ETA JARRERA

2. Ba al dakizu zenbat lehen hizkuntza dauden zure ikasleen artean euskara eta gaztelera ez direnak? Eta A-en familia hizkuntzei buruz zerbait badakizu?
3. Zeintzuk dira hizkuntza horiek?
4. Gutxitutako hizkuntzarik ba al dago horien artean (amazigh-a, kitxua ...)?
5. Ba al dakizu zerbait hizkuntza horiei buruz? Hizkuntza horietakoren bat ba al dakizu? Edo hizkuntza horietakoren baten ezaugarriren bat?
6. Garrantzitsua iruditzen al zaizu irakasleek hizkuntza horiek ezagutzea?
7. Garrantzitsua iruditzen al zaizu ikasle horiek euren lehen hizkuntzak mantentzea?
8. Zergatik? Abantailak, desabantailak? Aen kasua...
9. Garrantzitsua iruditzen al zaizu familiek euren hizkuntzak mantentzea? Zergatik? Abantailak, desabantailak? Modu informalean/ formalean ere bai? A-en kasua
10. Eskolak edo irakasleek zerbait egin behar dutela iruditzen zaizu lehen hizkuntza hauek mantentzeko? Zergatik? Zer egin dezakete?

#### IRAKASLEEN IRITZIA: LEHEN HIZKUNTZEN PRESENTZIAREN INGURUAN

11. Ze toki eduki beharko lukete hizkuntza hauek ikasgelan/ eskolan?

#### IKASLEEN LEHEN HIZKUNTZAK ESKOLAN DUTEN PRESENTZIA ETA ESTRATEGIAK

12. Zure ikasgelan tokirik ba al daukate ikasleen lehen hizkuntzek? Nola?
13. Eta eskolan (kartelak, egun bereziak...)
14. Liburutegian? Ba al dago libururik ikasleen lehen hizkuntzan?
15. Eta A-en kasuan
16. Nahikoa dela iruditzen al zaizu?
17. Lehen hizkuntzen lanketari dagokionez, zuk zerbait egin beharko zenukeela uste duzu edo hori ez da zure betebeharren artean sartzen?
18. Gainerako irakasleek zer pentsatzen dute gai honen inguruan? Zurekin ados daude ala ez
19. Arlo honetan lanketarik edo lan ildorik ba al dago eskolan?

#### EUSKARAREN JABEKUNTZAN ERAGITEN DUTEN FAKTORE AFEKTIBOAK



## PERTSONALAK

20. Nolakoa izan da perfil honetako (lehen hizkuntza ez euskara/ ez gaztelera) ikasleekiko harremana orain arteko zure esperientzian?
21. A- en kasuan?
22. Hizkuntza bat ikasteko prozesuan faktore emozionalek garrantzia dutela uste al duzu?
23. Adibidez, antsietatea, beldurra, frustrazioa, estresa, inhibizioa, barrenkoia/ kaporakoia izatea (introvertida/ extrovertida)
24. Autoestimak?
25. Ikasleak bere buruaz duen irudiak?
26. Beste ikasleek duten ikasle honen irudiak?
27. Lantzen al dira emozio hauek gelan? Nolakoa da A arlo honetan?
28. Zaintzen al da ikaslea emozionalki seguru sentitzea ikasgelan? Zer egiten da horretarako?
29. Ikasleak baloratzen dira eta balio dutela adierazten zaie?
30. Bere lorpenak errekonozitzen dira?
31. Bere kezka azaltzeko aukerarik ematen al zaio?
32. Taldean kooperazio guneak sortzen dira ? Edo konpetitiboak?
33. Hizkuntza ikastea helburu ez duten eta gelako giroa hobetzeko helburua duten jarduerarik egiten al da?
34. Ebaluatzean zer baloratzen da hizkuntzari dagokionez?
35. Zergatik uste duzu ikasi nahi dutela euskara ikasle hauek? A-en kasuan?
36. Zergatik uste duzu ikasi behar dutela euskara ikasle hauek? A-en kasuan?
37. Eta gaztelera?
38. Ikasle hauen motibazioa (euskara ikasteko) lantzen al da? Zerbait egiten al da euskara ikasteko motibazioa izan dezaten? A- en kasuan?
39. Ikasteko nahiak ze eragin du zure ustez ikasteko prozesuan?
40. Ze espektatiba ditu ikastetxeak Aen ikasketa prozesuarekiko?
41. Aen familiarekin ze harreman du eskolak? Harreman gehiago/ gutxiago eduki beharko lukeela uste duzu?

SOZIALAK edo ERLAZIOZKOAK: Kulturantzitasuna, identitatea, empatia, jarrerak, kanpo motibazioa

42. Inguru soziolinguistikoak ze eragin du euskara ikasteko prozesuan? Aen kasuan?
43. Euskararekiko (Polita , itsusia, erraza, zaila), euskal hiztunekiko (jatorrak, antipatikoak...) eta euskara ikasteko prozesuari (gai naiz hizkuntza hau ikasteko, ezin dut hitz egin...) buruzko ze jarrera du Aek?
44. Zuk, ze jarrera transmititzen diezu ikasleei euskararekiko, euskal hiztunekiko eta euskara ikasteko prozesuarekiko?
45. Familiak?
46. Ikaskideek?
47. Identitate aldetik, nongoa sentitzen da A?
48. A bertako kulturaren parte senti dadin zerbait egiten al da?
49. Ikasleen kulturara gerturatzeko zerbait egiten al da? Zer ? Nola?
50. Ikasleen kulturak baloratzen dira? Nola? Aen kasuan

51. Ikastetxean ba al dago helburu/ ekintzarik kulturantzatasuna lantzeko eta kulturen arteko elkartrukea sustatzeko? Zer egiten da? Nahikoa da edo gehiago egin beharko litzateke zure ustez?
52. Ikasleen arteko errespetua sustatzeko zerbait egiten al da?
53. Erlazio positiboak bilatzen dira ikasleen artean?

A KASUA

ELKARRIZKETA: familia

DATUAK

Aren ama

D eredua (eskola publikoa)

Gelantia denak autoktonoak

8 urte

Bi urte Zaldibian

G: Datos de A:

E: Nació en Rumania, vinimos hace dos años, en junio de 2010. Empezó en la escuela en septiembre.

G: El primer contacto con el euskera...

E: Aquí, sí. Pero con sus amigos habla castellano, aprende castellano con dibujos, en la tele y así.

G: ¿Qué idiomas sabe?

E: Rumano, en casa habla rumano, pero cuando vienen unos amigos que hablan ucraniano, también habla algo de ucraniano. Luego el castellano y también el euskera en la escuela. Un poco de todo.

G: Entonces en casa rumano y ucraniano...

E: No, en casa sólo rumano. Ucraniano sólo con esos amigos, sabe palabras.

G: ¿Qué tal es su relación con los compañeros de clase, con los profesores?

E: Bien, bien. Le gusta el parque, juega con los amigos, le gusta la escuela

G: ¿A tí te parece importante que mantengan su primera lengua?

E: Sí, primero rumano, porque en Rumanía hablamos rumano. Primero que aprenda rumano y luego los demás idiomas.

G: Hablar, habláis rumano, pero escribe algo, lee?

E: En casa tiene algunos libros y ha aprendido a escribir conmigo, pero le cuesta ponerse a leer o escribir después de la escuela

G: ¿Te parece que en la escuela tendrían que hacer algo para mantener o reforzar estos idiomas, idiomas que no sean ni euskera, ni castellano, ni inglés?

E: Sí

G: ¿Qué te parece que se podría hacer?

E: No sé, algo...si se hace mejor, si no, si no se puede...si no quieren no pasa nada.

G: ¿Por qué debería hacer algo la escuela?

E: A veces, mezcla palabras de euskera, castellano y rumano cuando habla con su familia de Rumanía: Le dice "Kaixo abuela, luego en rumano y luego igual "leche" en euskera. Y no le entienden. Habla un idioma y olvida palabras de su idioma.

G: ¿Y te parece que ahora, en este momento, tienen suficiente sitio estos idiomas en la escuela, en su clase?

E: No.

G: ¿Te parece que se podía hacer más?

E: Sí

G: ¿Y sabes si en la escuela en general se hace algo respecto a este tema, en otras clases, o si hay algún criterio para tratar estos idiomas?

E: No, no tengo ni idea

- G: ¿Y qué crees que piensa la gente de vuestro alrededor (otros padres, los profesores) de vuestro idioma y de que mantengáis vuestro idioma?
- E: Que cada uno respete su idioma y su religión y así...y cada persona respeta lo otro...
- G: Pero te parece que les parece bien...
- E: No preguntan por ejemplo de dónde vienen, de qué zona de Rumanía, qué idiomas se hablan...porque allí también se hablan diferentes lenguas, por ejemplo en algunas zonas de Rumanía también se habla ucraniano...
- G: ¿Te parece que a la hora de aprender euskera, los factores emocionales, es decir, el miedo, la ansiedad, el estrés...influyen?
- E: ¿Los niños o la familia?
- G: los niños
- E: No al niño lo veo bien, tienen ganas de aprender y cada vez que aprende algo nuevo quiere saber más...no tiene miedo.
- G: y miedo a hablar...
- E: No, no. Él es muy abierto y no tiene vergüenza. Al principio le costó un poco porque no entendía nada de euskera ni de castellano, pero ahora está mejor.
- G: Su manera de ser, ¿crees que influye a la hora de aprender? Por ejemplo que sea más abierto o más cerrado...
- E: Sí, sí. Él es abierto. Le gusta estar con sus amigos, por ejemplo cuando sale a las doce o a las cuatro y media no quiere entrar en casa hasta que todos sus amigos se van con los padres. Tiene buena relación.
- G: Y te parece que ser como es le ayuda a aprender...
- E: Sí
- G: Y su autoestima, lo que él piensa de si mismo...¿te parece que influye?
- E: Sí, él por ejemplo dice que cuando sea mayor quiere ser doctor o maestro...
- G: Te parece que tener la autoestima bien, ¿le ayuda para aprender?
- E: Sí, sí.
- G: Y respecto al aprendizaje del euskera, ¿qué tal le ves?
- E: Bien, tranquilo.
- G: ¿Te parece que el ambiente de la escuela es apropiado para que aprenda idiomas?
- E: Sí, Belén me ha dicho que es un niño que quiere saber todo.
- G: ¿Y cuando él aprende algo nuevo en la escuela se le reconoce lo que ha conseguido? Se le dice, "que bien..."
- E: Sí, sí. Cada vez que viene me cuenta todo.
- G: ¿Crees que tienen que aprender euskera? Por qué?
- E: Sí, sí. Estamos aquí y vivimos aquí y necesitamos que otra gente vea que uno quiere aprender, que quiere su idioma.
- G: Y el castellano, ¿te parece que lo tienen que aprender?
- E: Sí, el castellano si sale del País Vasco, por ejemplo, en Madrid, tienes que saber...el castellano no es un idioma de una ciudad o así, es de toda España, así que...
- G: ¿Él quiere aprender estos idiomas?
- E: Sí, claro, sino no podría comunicarse con sus amigos, profesores...
- G: En vuestra vida normal, ¿que sitio tiene cada idioma?
